

Belateko tunelak berriz itxiko dituzte obrekin segitzeko

Joan den ortziralean zabaldu zituzten berriz ere Belateko tunelak, aste batez moldaketa lanetan aritu ondotik. Dena den, bi urtetan lau aldiz itxi dituzte tunelak, eta orain ere inork ez du segurtatzen ahal oraingoa azken aldia izanen denik. Nafarroako Gobernuak aferari garrantzia kendu eta bertze alde batera begiratzten du, hauteskunt-

deak gain-gainean direlako beharbada. Florentino Goñi Oronozko alkatea arrunt kezkatua agertu zaigu kontu honekin: «*Herrilan Departamentuari hau erranen nioke: tunela hauteskunde kanpainaren erdian itxi behar bada, ixteko! Boto batzuk galduta ere hobe da aterabide egokia ematea desgraziaren bat gertatzea baino*».

Jose Ignacio Palacios kontseilariak jakinarazi duenez, zirkulazio guttiago dagoen sasoia aprobetxatu nahi dute "arazoa betirako moldatzeko".

Goñi alkatearen ustez, arazoak ez du soluzio errezik, eta gainerako herritarrek ere ez dute konfidantza haundirik, «*gero eta gutiago fidatzen gara errepide honekin. Moldatu duten bakoitzean betirako izanen zela erran dute, baina ikusten denez hori ez da horrela*».

8, 23



3 Elkarrizketa: Gabriel Salaberri

Gaur bertan 7.000 izokin kume bota dituzte Endarlatsan, Oronozko arrantegian mikrotxipa jarri ondotik. Bidasoako izokina biziberritzeko egiten ari diren lanaren berri eman digu hango langile batek.

4 Erreportaia: Artzain zakurrak lanerako hezitzen

Zakurrak baserriko lanetan hezitzeko ikastaroa antolatu du ITGk Elizondon. Martxo erdialdetik uztailera izanen da ikastaroa, eta han zer erakutsiko duten kontatu digu Alejandro Ibarra irakasleak. Ikastaroa egina duten artzainen iritziak ere bildu ditugu.



su r n t sun r n l

urr ts

st ntz

s n r h ut s un

Es n l k z r l k

**Eusk l H rr k h tz
t r k z t k**

**Eusk l H rr k
r nst tuz k
h r tu l k**

**M r l n sz r
ur t k**

**Gur s m - l k
t rk zun r n z t k**

**Gur rr kurts k t
k n m uk nt l tz k**

DATUAK.....

- ❖ Orain dela urte bat sortu ziren 7.000 izokin botako dituzte Bidasoarat gaur, hilak 24.
- ❖ Endarlatsako presan utzi baino lehen, ordea, banan banan markatu egin dituzte sudurrean milimetro bateko mikrotxipa paratuz.
- ❖ Seinale horri esker jakinen dute gero non barna ibiltzen diren Bidasoko izokinak.
- ❖ Gabrielelek erran digunez arrainen neurriarekin dituzte gorabehera handienak, gaur egun garai batean baino puskaz ttikiagoak heldu baitira izokinak.
- ❖ Nonbait gaur egungo izokinek ez omen dute garai batekoek egiten zuten ibilbide luzerik egiten.

TESTUA ETA ARGAZKIA:
ASIER GOGORTZA

✍️ **Gabriel SALABERRI** *Ornozko arrain haztegiko langilea*

“Urtero 52.000 izokin ttiki botatzen ditugu Bidasoarat”

ZEIN DA BIDASOAKO IZOKINA BIZIBERRITZEKO EGITEN ARI ZARETEN LANA?

Guk bi birpopulatze egiten ditugu: urriroan harrapatzen ditugunetatik (12-15 eme eta 8-10 ar) arraultzeak ateratzen ditugu. Aurten, adibidez, 62.000 arraultze atera dira, eta horietatik 52.000 izokin ttiki sortu dira. Arront portzentaia handia da, %85a inguru. Horietatik gehienak ekainean botatzen ditugu errekarara, pasten dute uda guzia, negu guzia eta udaberrian jausten dira itsasorat.

Bertzetik, ekaineko kume hoietatik sail bat (7.000 inguru) hemen gordetzen dugu mikrotxipa sartzeko. Hauek gaur Endarlatsan libratuko ditugu. Hilabete baten buruan itsasoan dira denak, orain botaiak eta baita ekainekoak ere.

HORIEK ZENBAT ITZULIKO DIRA BERRIZ ERREKARA?

Izan ditugu urte arront onak, ez dakit itsasoan harrapari gutiago izan delako edo zer, baina batzutan ailegatu izan zaizkigu guk botaietatik %5 edo 6a ere. Normalki %2 edo 3koa izaten da portzentaia.

BEREZ ITSASOAN 2-3 URTEREN BURUAN GOITU BEHAR LUKETE BERRIZ ERREKARA, EZTA?

► “7.000 arrainkume ingururi mikrotxipa jarri eta ortziralean bota genituen Endarlatsan. Hilabete baten buruan itsasoan dira denak, hoiak eta baita ekainean bota genituenak ere”



«Orain botaietatik %2 edo %3a itzuliko da berriz errekarara».

Bai, baina azken urteotan ez da hala izaten. Itsasoan negu bat pasatuta etortzen zaizkigu, edo gehienez ere bi negu pasatuta. Hiru neguko azkenak 97an sartu zitzaizkigun –10 eta 12 kiloko bi eme–.

Negu batekoak hemen inguruan ibiltzen dira, kostatik sobera urrundu gabe, baina bi negukoak Irlanda alde-

an agertu izan dira, eta badakigu Groenlandiara ere joaten direla.

Oraingo izokinek ez dute duikabe itsasoan egin behar duten bidea egiten, baina beti izandu da negu bateko izokin hori. Aspaldi, 10-12 kiloko izokin handiak ateratzen zirenean, ttikiak ere baziren, baina kontua da handietaz bakarrik oroitzen garela.

ZERBAIT EGITEN AHAL DA IZOKIN HANDI HOIEK BERRESKURATZEKO?

Bai, orain bertan bi neguko 6 eme ditugu Oronozko arraintegian. Uste dugu hoiak umeak

ere bi negurekin etorriko direla, eta ahal den moduan probexu nahi ditugu. Halere, 6 izokin hauek badituzte 6 hilabete batera jatekoak. Arraultzeak kendu genizkien abenduan, eta orain hasi dira ganba bat edo bertze jaten, baina orain arte... Haur ttiki bati bezala erakutsi behar diegu jaten.

Hortaz da arrantza ere horren zaila, izokinak ez baitu goserik errekan hilabete bat pasatu ezker. Hori ederki dakite arrantzaleek. Amua muturrera bota eta deus ere ez.



Joan den urteko ikastaroan parte hartu zuten artzainetako batzuk.

Artzain zakurrak lanerako hezitzen

Zakurrak lanean nola hezi behar diren erakusteko ikastaroak antolatu ditu ITGk azken bi urteotan Elizondon. Orain arte izan duten arrakasta ikusirik, martxoaren erdialdetik uztaileira bertze bat eginen dute, Alejandro Ibarra irakaslearen eskutik. Europako bertze herrialdetan aspalditik erabiltzen duten sistema erakutsiko du Lakuntzako artzain honek: "agindu gutti eta motzak eman behar zaizkio zakurrari" dio Alejandrok. Zakurra ongi ikasia baldin bada laguntza handia ematen ahal dio baserritarrari, behi, zerri, ardi edo antzara edo ahateekin.

TESTUAK: ASIER GOGORTZA
ARGAZKIAK: RAMON AZURMENDIK UTZIAK

Artzain zakurra baserritarren eskuin eskua izandu da betidanik, ez artzaiena bakarrik. Azken urteotan ardizakur lehiaketek gero eta ikusmin gehiago sortzen dute jendearen artean, eta horregatik egin da ezagun zakur hauek artaldeak maneiatzeko duten gaitasuna. Dena den, baserritarrek ongi dakite ardiak ez ezik, bertze zernahi animali gobernatzeko ere laguntza handia ematen dutela zakurrek. Hori bai, edozein langileri bezala zakurrari ere bere lana ongi egiten erakutsi behar zaio. Zenbat eta hobekiago ikasi, orduan eta baliagarriago izanen da lanerako. Abeltzainekin buruz buru lan egi-teak ematen duen esperientziatik ikasi du hori ITGk, eta badira 6 urte gisa honetako ikastaroak anto-

latzen dituztela. Nafarroa osoko 100 baserritarretik goiti aritu dira ikastaro hauetan.

Europako sistemaren arabera erakusten dute

Lehen urteetan kanpoko adibideari begiratu zioten ITGkoek. Frantziako zakur hazle bat ekarri zuten hango teknikak erakusteko. Alejandro Ibarra lakuntzarra da gaur egun irakaslea, baina ITGren ikastaro batean ikasi zuen berak ere. «ITGk frantses bat ekarri zuen sistema hau erakusteko, Frantzia eta Ingalaterran aspalditik erabiltzen baita. Ni ikastaro horretan izan nintzen eta teknika hori ikasi nuen» dio Alejandrok. Berak ongi ikasia du sistema horren sekretua: «hitz guttiago eta gauza konkretuagoak zakurrarentzat. 6 edo 7 agindurekin nahikoa da lan egiteko». Ikastaro hauetan parte hartu duten

«Zakurrari 6 edo 7 agindu erakustea nahikoa da ongi lan egiteko»



Zein da ikastaroaren helburua?

Zakurra lan tresna moduan erabiltzen ikastea. Zakur ona duen baserritarrak abantaila du makila erabiltzen duen abeltzainaren aldean.

Zuk non ikasi zenuen artzain zakurrak hezitzen?

Neri betidanik gustatu izan zait zakurrekin aritzea. Orain dela urte batzuk ITGk frantses bat ekarri zuen sistema hau erakusteko, Frantzia eta Ingalaterran aspalditik erabiltzen baita. Ni ikastaro horretan izan nintzen eta teknika hori ikasi nuen: hitz guttiago eta gauza konkretuagoak zakurrarentzat. 6 edo 7 agindurekin nahikoa da lan egiteko.

abeltzainak bat datoz gauza batean. Sistema hau arrunt egokia da zakurrarentzat, baina beti ere hobe da zakur gazteak eramatea. Ikasteko adin hobereana, Alejandroren ustez, 6 hilabetetik urte terdira izaten da. «Zakurra hori baino zaharragoa baldin bada ohitura txar batzuk hartuak izaten dituzte dagoeneko» dio. Aldiberean, abeltzainekin ere gauza beretsua gertatzen dela aipatu digu: «gehiago ikasten dute esperientziarik ez dutenek, bertzeek zakurrekin lan egiteko ohitura batzuk izaten dituztelako, eta zailagoa da ohitura hoiak aldatzea».

Lakuntzar honek berehala antzematen ditu zakur bakoitzaren birtute eta akatsak. «Zakur guztiak desberdinak dira eta prozesua desberdina da

Artzain bakoitzak nahi duen hizkuntzan egiten ahal dio zakurrari, baina beti agindu motzak izan behar dute.

Zaila da zakurrak hori ikastea?

Ez, zakurrari egunero 10 minutu dedikatzea da kontua. Inguruko giroarekin, soinuekin ohituratzen joan behar du, beldurra galdu eta lanera ohitu dadila.

Zein da zakur bat hezitzen hasteko adinik egokiena?

6 hilabetetik urte terdira da zakurrak gehien ikasten duen adina. Zakurrak beranduago hartzea, berriz, arriskutsua da azientarengana joateko afizio haundia izaten ahal baitu dagoeneko.

Zure ustez zakurra jo egin behar da noizbait?

Horretarako zakurraren adina eta ezaugarriak kontuan hartu behar dira beti. Hala ere batean autsiki txar bat egiten badu, momentuan bertan zaplazteko bat ematen ahal zaio abisu bezala. Baina zakurrak beti jakin behar du zergatik eman diozun, bertez naz konfidantza galtzen du.

bakoitzarekin. Batzuek presio gehiegi egiten diote artaldeari, bertze batzuk, aldiz, gogoerak dira, eta gogorrak izaten erakutsi behar zaie...». Dena den, zakurrak genetika egokia baldin badu horrelako akatsak aise zuzentzen omen dira. Abeltzainek egiten dituzten akatsak bertze kontu bat dira, ordea. «Artzainek, batzutan, ohitura dute zakurrak zerbait gaizki egiten duenean errixta egiteko, eta ongi egiten duenean deus ere ez. Orduan zakurrak ez daki noiz egiten duen ongi, ez du konfidantzarik hartzen». Jokabide oker hoiak zuzentze aldean ere lan egiten dute ikastarotetan: «Abeltzaina eta zakurraren arteko harremana nola aldatzen den nabaritzen da ikastarotetan». ■

IKASTAROA EGINA DUTEN ARTZAINEN IRITZIAK



✎ Felix IRIGOIEN Amaiur

«Nik ikastaroa egin aitzinetik ere erakusten nien zakurrei, baina lanean eta obeditzen aldiberean erakusten nien, eta hori ez da beti ona izaten»

✎ Alejandro TORRES Amaiur

«Gure lanean langile bat gehiago da zakurra, behar beharrezkoa da bere lana ongi egiten ikastea»



✎ Federico ETXENIKE Gartzain

«Zakurra maneiatzen erakutsi ziguten ikastaroan, zer eginarazi, nola menperatu...»



✎ Bixente AROZENA Arantza

«Hagitz interesgarria iduritu zitzaidan ikastaroa, eta ni bezala, bertzeak ere kontent ateri zirela uste dut»



✎ Miguel Agorreta Ureta, Erro

«Ni behiekin aritzen naiz lanean, eta generalean ardiekin aisago aritzen badira ere, zakurrak aunitz laguntzen dit»



✎ Jose Mari REKARTE Arizkun

«Ni gustora gelditu nintzen, eta zakurrak ere aunitz ikasi duela ikusten dut»

✎ Joxemanuel Martiarena Elizondo

«Ikastaro hauetan beti ikasten da zerbait. Zakurrari ttiki-ttikitatik nola erakutsi behar zaion erraten ziguten»



IZENA EMATEKO

- Martxoaren 3a baino lehen
- Matrikula 5.000 pta
- ☎ 948 27 80 11

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arozena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fernandez,

Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor, Margari Etxenike,

Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri,

Frederick Berruet, Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena,

Pello Apezetxea, Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea, Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leiza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortziritako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria160 Libera

Europa4.000 Pta.

Amerika16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

N-121 errepideko istripuak

Zati berriarekin errepidea hobetuko da, baina baita abiadura haunditu ere



Joxemari HERNANDORENA
Sunbillako alkatea

Sunbillako tunelaren irteeran dela bi aste izandu azkeneko istripua,

moto bat aterri zen errepideetik, bainan denetik izandu da hor, kotxeak, kamioiak...

Zergatik ote den? Nere ustez, tunelaren ikusten dute zuzen-zuzena dela, eta nahiz eta seinalez-tatu egon, abiadura kokorrean ateratzen dira hortik. Orduan bapatean topo egiten dute errebuelarekin eta nahiko arriskutsua izaten da. Errepide berriarekin bihurtune hori desagertuko da, bainan hori egiten duten bitartean...

Suertez istripurik izan ez dutenak baserrikoak dira, hor bertan sarrera hagitz txarra baitute. Uste genuen horientzat zela arriskurik haundiena, ispiuarekin ez baita ongi ikusten, batez ere lainoak estaltzen duenean.

Zati berria idekitzen dutenean errepidea hobetu egingen da, bainan abiadura ere haundiagoa izanen da. Errebuelta hori desagertu egingen da, bidea zuzenean ugaldearen bertze aldera pasatuko da.

Badakigu errepide honetan puntu beltz aunitz dagoela, Sunbillan, Enderlatsan... eta dena moldatzen ez den bitartean istripu gehiago izanen direla.

Mugairi eta Zozaia arteko tarte hori kriminala dago



Mateo LERTXUNDI
Elizondoko taxi gidaria

N-121ean puntu beltz-beltzenak hauek dira: Mugairi eta Zozaia arteko tarte dago txarrena, hori kriminala dago, zeren kamioiak mar-txa haundian etortzen dira, frenorik gabe gelditzen dira, eta eramaten dute aitzinean harrapatzen duten guzia. Gainbehera zuzen-zuzen heldu dira, eta ezagutzen duenak oraindik, bainan ezagutzen ez dutenek...

Gainera Belaten zirkulazio haundia dago oraindik. Leitzaran autobia famatu hura egin zuten, bainan nik uste handik baino gustorago hemendik beheiti ibiltzen dira, ez dakit laburragoa delako edo zer... Murtziakoak, Valentziakoak, kamioilari guziak hemen barna pasten dira eta gero Lesaka, Enderlatsa eta hortik doazi. Hor tapoi handia egiten da aldiro.

Sunbillako tunelaren irteera ere arriskutsua da. Bihurgune hori itxi-itxia da eta abiadura haundian heldu dira. Berako saihe-bidea akautu eta, Villanuevako errebuelta hori ere aski txarra da. Enderlatsako zubitik aitzinera ere egoera penagarrian dago errepidea.

Errepide zati berriak moldatzen dituztelarik arazoa aunitz hobetuko da nik uste.

Jakinik errepide txarra dela aunitz abiadura handian eta prisaka ibiltzen gara




Jose Migel MARITXALAR
Lesakako kamioilaria

Hamaika istripu ikusi ditut errepide horretan. Nik pentsatzen dut gidarien errua dela gehienbat. Jakinez errepide txarra dela aunitz prisaka ibiltzen gara eta abiadura handian. Errepide hori aspaldi eginga da eta orduan ez zen oraingo zirkulazioaren erdia ere izanen. Orain merkantzia gehien-gehiena kamioiez ibiltzen da, eta gehienak hemendik eta Etxegaraten barna pasatzen dira. Nik erratan ahal dizut txoferren artean konpetentzia handia dagoela, horregatik lo gutti egiten dute eta zapatilla dexente ematen zaio. Gainera kamioiak aunitz ibiltzen dira orain, motor hagitz potenteak dituzte.

Nik uste Villanuevatik Enderlatsara dauden errebuelta hoiek direla txarrenak. Hagitz-hagitz meharra da. Hor bi kamioi gurrutzen direlarikan bien artean ez dago metro bat ere! Gainera ez dago bidebazterrik, alde batean erreka eta bertzean harrizko paretak. Nik ez dakit nola pasatzen garen...

Hagitz tristea da errepidea horrela egotea. Mugairiraino moldatuko dute, bainan hortik honat? Ez dakit zer pentsatu, arazo politikoa da, edo zer?



ttipi-ttapa fundazioak Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

Goizuetako kiroldedia

Goizuetan pilota plaza eta kiroldedi berria egiteko asmoa badenaren zurrumuruak indartzen ari dira azken hilabete hauetan. Maketa Udaletxean dagoela ere entzun dugu. Ez dakigu zenbat kosta litezkeen horrelako instalakuntzak. Ezta herriak dirutza horrerri aurre egiten ahal dion ere. Hala ere, lerro hauen bidez alkatea eta zinegotziak animatu nahi ditugu obra hori aurrera eramanez dezaten. Azken urte hauetan gazte gehienek herriatik alde egiten dute, eta komodidade batzuk sakrifika-tu arren hemen gelditzea erabaki dugunok, herrian ahal den zerbitzu gehienak jasotzea merezi dugu.

Animo eta aurrera, seguru gaude herritar gehienek laguntza izanen duzuela.

HERRIKO HIRU GAZTE



Nafarroako Kutxa eta euskararen erabilera

Azken aldi honetan jakin dugun bezala, Iruñeko Kutxak eta Nafarroako Aurrezki Kutxak bat egiten dute Nafarroako Kutxa izeneko entitate berria sortzeko. Bortzirietako Euskara Mankomunidadearen betebeharrak nagusia Bortzirietan euska-

raren normalizazioa lortzea eta bertako biztanleek legez dituzten hizkuntza eskubideak betetzea dira. Horregatik kutxa berriaren arduradunei eskatzen diegu kontuan har dezaten Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera Bortzirietako herriak (Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka) eremu euskaldunetan daudela eta beraz, euskara hizkuntza ofiziala dela, gaztelania bezala. Beraz, Nafarroako Kutxak bere eguneroko aferetan euskara erabili behar du: baitetik, legez onartua dagoen toponimia errespetatu behar du eta bertalde, euskararen erabilera ofiziala bermatu behar du, ahozko zein idatzizko jardunean. Horretarako, kuxtetan arituko diren langileek euskararen ezagutza izanen dute. Idatzizko jardunari dagokionez, euskara erabili behar du bulegoetako errotuluetan, baita bezeroen eskura iritsiko diren dokumentu guzietan ere (txekekak, libretak, inprimakiak, eskutitzak, estraktoak, publikizitate-orriak, dokumentu informatiboak...).

Modu honetan bakarrik bermatuko dira gure herrietako biztanleek legez dituzten hizkuntza eskubideak.

J. RAMON AMOROS OSKOZ
(BORTZIRIETAKO EUSKARA
MANKOMUNIDADEKO LEHENDAKARIA)



OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu behar dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*

Abstentzioaren bidez euskal demokraziara

Euskal herria: gure herria, milaka urteko hizkuntza, kultura eta nortasuna, baina ez bakarrik hori, baita herri kontzientzia ere, herriak nazioa izateko duen borondatea. Demokrazia: poterea herriaren baitan. Herriak du boterea. Hala behar luke, baina tamalez ez da horrela. Munduko erakunderik potoloenek aitortutako autodeterminazio eskubidea ukatzen zaio gure herriari. Espainiak eta Frantziak egunero euskal nortasuna ukatzen digute, ez garena izatera behartu nahi gaituzte. Estatu hauek ez dira jada hiritarren eskubideak zaintzea helburu duen gizarteak antolatutako bitarteko, baizik eta frantses eta espainol nazionalismo inposatzaileen helburu. Estatuaren batasuna herritarren eta herri ezberdinen eskubideen gainetik. Bitartekoa helburu bihurtua. Beren legeak hartara bideratu dituzte, eta gu horiek betetzean (maiz behartuta) legitimatzen ditugu. Euskal herria eraikitzeko apustu tinkoa egin dugunez, Frantses eta Espainiar gisa bizitzeari utzi behar diogu, ezinbertzean. Hamaika lan eta borroka gure gain hartu ditugu herri gisa bizirik irauteko, eta hemendik aitzin ere hartu beharoko ditugu. Martxoaren 12an aspaldi honetan egin dugun lan errezena

egokitu zaigu, garena agertzea, baina ez horregatik garrantzi eskasekoa. Espainiar eta frantziarrei beren geroa erabakitzen utzi nahi diegu, ea ekartzen dizkiguten odolkiak ordainetan. Espainia eta Frantziari paso, ordago Euskal Demokraziari.

OSKA GOÑI PETRIRENA

BERA




*Inauteriak
umore
ederrean
pasatu!*

Merkatarien karrika 28
© 948 451826
DONEZTEBE

PUBLIZITATE AGENTZIA

Diario de Navarra **Garaia**

Noticias **EL CARRO VASCO**

informazioa:
☎ **948 63 11 88**
E-Posta: kulturkari@euskalnet.net
Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA

Zure publizitatea egunkari, irratia edo telebistetan agertzeko KULTURKARI bitartez duzu biderik errazena. Kontsultatu bakoitzak duen tarifa.

KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak

 **Anastasio NAGORE** Elizondoko alkatea

Saihesbidea egitean herrien iritzia kontuan har dezatela



Otsailaren 6an egindako batzarrean argi ikusi zen Arraiozen hasi eta Elbeten akituko den saihsbidearen aferak jendearen interesa piztu duela. Jende aunitz bildu zen, gehien bat, trazatuak ukitzen dituen lurren jabeak, baina aferak elizondar guziak eta inguruko herrikoak sentsibilizatu dituela uste dut. Egia erran, ez zen izan batzarre bat saihsbidea egin edo ez egin erabakitzeke. Guk dugun informazioa jendearen eman nahi genion, eta hauek duten iritzia bildu, bertzerik gabe. Hare, informazio gehiago behar dela erran zuen batzarreak. Kargodun gisara dugun Gabriel Laborrak eman zituen zehaztasun batzuk, baina gustatuko litzaidake Balleko Udaleko

arkitektuak ere batzarrearen batera agertzea eta argibideak ematea. Batzuk saihsbidea beharrezkoa ote den zalantzan jarri zuten. Nere ustez, trafikoaren egoera katotikoa da gaurko egunean, batez ere karrika nagusian. Kamioiak eta autoak nekez gurutzatzen dira eta bide bazterrean bertze bat aparkatua badago zer erranik ez. Nere ustez lehenago edo beranduago saihsbidea egin egingen da. Gainera, Nafarroako Gobernuak egin behar dela erraten badu egingen da, dudarik gabe, hor ez baitute kontuan hartzen herriarrak alde edo kontra dauzen. Orain arte ikusitako-

ren arabera, saihsbideak bortz kilometro terdi izanzen lituzke, laster akituko duten Arraiozko saihsbidetik hasi, Irurita, Lekaroz eta Elizondon barna pasatuz, Elbete bitarte. Egia da nekazari lurak eta berdeguneak hartzen dituela, baina ez zait iruditzen exageratua denik. Dena den, afektatuek beraien alegazioak aurkeztu beharko dituzte, horretarako baitaude. Lehen ere, orain dela zortzi hilabete inguru egindako batzarrean lau trazatu ezberdin ikusi gienuten

Nafarroako Gobernuak erraten badu Elizondoko saihsbidea egin behar dela, lehenago edo beranduago egingen da. Trazatua egiterakoan afektatutako lau herrietako bizilagunen iritzia kontuan har dezatela bederen.

eta horiei alegazioak aurkeztuz gelditu dena aurkeztu dute orai.

Bertze kontu bat da Pirinotako Autobidearena da. Intxauspek errandakoaren arabera, izan liteke Erratzutik pasatzea. Orduan, autobidea eskuineko aldetik eta saihsbidea ezkerreko aldetik, gehiegixko izanen litzateke. Balleko Udalak bere garaian erran zuenez, saihsbidea egiteko lau herrien iritzia kontuan harturiko da. Orain arte horrela izan da eta espero dut hemendik aitzinera ere horrela izatea. Momentuz alkateoi planorak eman dizkigute, guk batzarreari erakusteko.

 **Florentino GOÑI** Oronozko alkatea

Belateko tunela itxi behar bada, abudo egin dezatela



Bi urtetan laugarren aldia da Belateko tunela ixten dutela eta ez da azkenekoa izanen. Horrek sakoneko konponketa behar du. Denok badakigu hor bazela arazo bat, egunetik egunera ur gehiago ikusten baitzen eta azkenean gertatu beharrekoa gertatu da. Ez dakit norena den errua, baina ardura Herrilan Departamenduarena da eta orai soluzioak eman behar dira. Horregatik Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamenduari hau erranen nioke: Ausartak izan, itxi behar bada itxi ezazue tunela. Horrek ez die beldurrik edo lotsarik eman behar, nahiko lotsagarria baita orain arte gertatu dena. Hauteskunde kanpainaren erdian itxi behar bada itxi dezatela. Boto batzuk galduta ere hobe da prekauzio batzuk hartzea desgraziaren bat gertatzea baino. Hori da inportanteena neretako. Ez dezatela hauteskundeak pasatzea esperatu lehen egin zuten bezala. Gauza berbera gertatu zen: lehendik itxi behar zen, baina hauteskundeak pasatu arte utzi zuten. Oraingoa ere aspaldi itxi behar zuten. Duela hilabete bat, hainbertze ur putzu ikusita, Patxi Oartzabal Balleko alkateak galdetu zion kontseilariari zer gertatzen zen tunel barren hortan eta ez zuten deus erantzun. Herrian uste dugu tunela itxi gabetanik axaleko moldaketa eman nahi ziotela, bertzerik gabe,

baina ez da horrela gertatu. Gauzak ongi egin behar dira. Mantenimendu egoki baterako urtean hiru-lau edo bortz aldiz itxi behar bada tunela hiru-lau egunez, ba itxi! Eta gero segimendu xuxena egin. Horrek ez du erran nahi hirugarren mundukoak garenik, gauzak diren bezala dira eta kitto! Edozein desgrazia suertatzen ahal da eta hori makurrago izanen da. Eta hortan Nafarroako Gobernuak ez du zuzen jokatu.

Hemendik aitzinera Belate-

Herrilan Departamenduari hau erranen nioke: tunela hauteskunde kanpainaren erdian itxi behar bada itxi ezazue. Boto batzuk galduta ere hobe da prekauzio batzuk hartzea desgraziaren bat gertatzea baino. Hori makurrago izanen litzateke.

ko tuneletik pasatzen garenean eta ura barrenean ikusten dugunean jakinen dugu abudo itxiko dutela, hori izanen da seinalea. Bi urtetik edo hiru urtetik beti izanen dugu arazoa. Erraten dute hor dauden teknikoak onak direla, eta ez dut nik ezetz erranen, baina bistan da natura teknikoak baino indartsuagoa dela. Tunela zoko-zokoan dago eta menditik ur aunitz etortzen da. Ur horregatik sortzen da arazoa. Eroria gertatu zenean, ongi seinalizatu zuten tunela, hori argi gelditzea nahi dut, baina nere iduriko trafikoa gainetik desbideratu behar zuten berehala.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



GARA 2000ko otsailak 12

«Jendeak gurutzegramak egiten dituen bezalaxe, nik matematikako ariketak egiten ditut. Zenbakiak joko handia ematen dute», naturan ere zenbakiak daude.

Amaia LUJANBIO GOIZUETA.
Nafarroako Matematika Olinpiadako irabazlea
GARA
00-02-12

«Lotsa-emangarria da horrelako lanak egin ondoren orain ezin konpontzen ibiltzea».

«Lasaitasuna saltzen dugu hemen, inguru hau guztia ez delako ezagutzen, eta orain, asotsa besterik ez dugu».

Xefe ATXA
ALMANDOZ
San Blas Bentako Nagusia
EGUNKARIA
00-02-17

◆ Pilotari profesional zineneko oroitzapenik onena?

❖ Bigarren mailako buruz buruko bi finalerdietara ailegatu nintzen.

◆ Eta txarra?

❖ Lesioekin suertea izan dut. Behatz batengatik hiru hilabete egon nintzen geldirik, baina hogeit urtetan ez da sobera.

◆ Historiako pilotaririk onena?

❖ Retegi II.

◆ Eta ardura berezia ematen zizun Retegi III izena eramateak?

❖ Ez, abizen berdina dugu, baina ez dugu elkarrekin zer ikusirik.

◆ Zein ikusten dituzu faborito eskuz binakako txapelketan?

❖ Titin eta Lasa fuerte ikusten ditut.

◆ Zer da pilota eskolan erakusten duzun lehendabiziko gauza?

❖ Haurrak gustora joan daitezela, euren gisara joan daitezela inork behartu gabe.

◆ Bortzirietako pilotari gehiago ikusiko ditugu profesionaletan?

❖ Sobera abudo da errateko eta lasai utzi behar zaie. Nik nahiago dut afizionatutan landu eta zailtzen joatea. Gaia baldin badute pasatuko dira.

◆ Aurtizko txapelketan aritzen zara. Posible izanzen litzateke pilotaplaza horretan aritzea txapelketa haundiko pilotekin?

❖ Ez, ez da posible. Neurri tikiak ditu frontoiak eta erdi-boteko pilota gozuak, takorik gabe aritzeko modukoak, nahiko dira.

◆ Semea aritzen denean, aita edo entrenatzailea nagusitzen da?


❖ Aita gehienek akatsak ikusten dizkiogu semeari frontoian. Gauza onak ere bai, baina zuzentzen saiatzen zara eta auniztan pelmada ez emateko erraten digute.

◆ Pilotak onera edo txarrera egin du azken urteotan?

❖ Onera, dudik gabe. Telebista mesederako izan da. Lehen pilotaz mintzatzen ez zen lekuetan mintzatzen da orain.

◆ Zer errexagoa, dejadaz tantu egitea edo diru kontuak eramatea?

❖ Dejada bat egin eta tantoa ateratzea, sosa kontuak alde batera utzita.

**Luis Mari RETEGI**

BERA

Bankuko langilea eta pilotari profesional ohia

SAROB

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

**J. RAMOS**

Zolak akutxilatatu eta barnizatzen ditut

© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA

Tfnoa: 948 637 127
LESAKA**Alberto RETEGI**
abokatuaAltzate 17
BERA
© 948 630 763

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilketzak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...

**IRACHE TANATORIOA**Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54**FUNERARIA ZERBITZUAK**
Lesaka-Donostia**MALDAERREKA, S.L.**24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

INDUSTRIA

Krisiak jotako enpresek laguntza jasotzeko araudi berria bete beharko dute

Nafarroako Gobernuak Europako arauak beteko ditu gisa honetara

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Foru Lege proiektu bat onetsi du krisiak jotako enpresetarako dirulaguntzei buruzko Foru Legea Europako Batzordearen arauetara egokitzeko. Foru lege hori 1985eko martxoan onetsi zen eta krisiak jotako enpresak saneatu eta bultzatzeko dirulaguntzen ematea arautu zuen. Funtsezko bi betekizun ezarri zuen dirulaguntza emateko: bideragarritasun plan bat proposatzea eta enpresako jabe, langile eta akziodunek plak hori onartu eta hitzartutako neurriak betetzea. Foru Lege horren indarraldian ehun bat enpresari eman izan zaizkio dirulaguntzak, eta horietarik gehienek beren ar-

zoak gainditu egin dituzte.

Halere, 1994an Europako Batzordeak Europako Batasunaren Zuzentarau batzuk eman zituen, krisiak jotako enpresak salbatu eta berregituratzeko Estatuek emandako dirulaguntzei buruzkoak. Zuzentarau hauen arabera bere araudia egokitzea ere eskatu zion Nafarroako Gobernuari. 1997an aldatu ziren arau horiek.

SALBAMENDU ETA BERREGITURAKETA DIRULAGUNTZEN ARTEKO EZBERDINTASUNA

Zuzentarau berri hauek funtsean duten alderdirik aipagarrienak hauek lirakeke. Alde batetik, salbamendu eta berregituraketa dirulaguntzen arteko ezber-

BITXIKERIAK



TIPITAPA Hondurasen

Ez, ez dezala inork pentsa ttipi-ttapa Fundazioak, Berako Herriko Etxean duen egoitza utzi eta Amerika Erdiko herrialde hortara aldatuko denik. Tipitapa Hondurasko herri bat da eta errepideko seinale horri ateratako argazkia Iosu Iztueta tolosarrak egin zuen. Bitxia behinpein, bada.

dintasuna nabarmentzen zen. Salbamendu dirulaguntzak finantza egoera larriki hondaturik daukan enpresa bat denboraldi batez mantentzeko ematen dira, egoera horri aitzin egiteko azterketak eta planak egin arte. Berregituraketakoak, berriz, enpresaren bideragarritasuna epe luzerako berrezartzea helburu duen plan bat martxan parartzeko dirulaguntzak dira.

Berregituraketa dirulaguntzak emateko baldintzak ere ezartzen dira: bideragarritasuna ezartzea, lehiaren faltutze desegokia ez ego-

tea, berregituraketaren kostu eta etekinen eta dirulaguntzen arteko proportzionaltasuna, berregituraketa plana osoz aplikatzea eta baldintzak betetzea eta Batzordearen ikuskapen eta uteroko txostena.

ENPRESA TTIKI-ERTAIN ETA ENPRESA HANDIEN ARTEKO EZBERDINTASUNA

Enpresa tiki eta ertainean (PYME) eta enpresa handien artean desberdindu behar da, berregituraketa dirulaguntzak emateko ezarri diren betekizunak betetzeko zorroztasunari dagokionez nahiz dirulaguntza araubidearen

ezarketa eta hauek emateko jakinarazpenari dagokionez.

1997ko irailaren 1eko Erabaki bidez, Nafarroako Gobernuak krisiak jotako enpresetarako dirulaguntzei buruzko Foru Lege proiektua igorri zion Europako Batzordeari eta gero, honen eskatuta, aldaketa batzuk egin ziren.

Joan zen martxoaren 16an Europako Batzordeak haren onespina eman zion Foru Lege proiektuari eta orain Gobernuak onetsi eta gero, Nafarroako Parlamentura bidaliko du bertan eztabaidatu eta onetsi dadin.



Bizikleta Tailerra

Errepide, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak

Arropa eta osagarriak

Salmenta eta konponketa

K A T E A - B I K E
| 3 2 1

zapatadenda kalotxa

osagarriak konponketa

Legia 36 Bera Nafarroa • 948 631516

Otsailaren 26tik martxoaren 7ra itxita

Martxoaren 7tik aitzinera **Legia** karrikan gaude!

Haurtzaindegia irekitzeko proiektua aurkeztu du Labiagak

Ikastetxe guzietako kideak Udal ordezkariekin bildu ziren horretaz solasteko

ASIER GOGORTZA

Joan den urteko azaroan Bortzirietan bizi diren 0-3 urte bitarteko haurrentzat Haur Eskola irekitzeko baimena eskatu zion Labiaga ikas-tolak Berako Herrikoetxeari. Adin horretako haurrekin dagoen hutsunea betetzeko da proiektu

tu horren helburua, LOGSE legeak hala agintzen badu ere, bortz herrietan ez baita Haur Hezkuntzako lehen zikloa eskaintzen duen ikastetxerik.

2002. urtetik aitzinera nahitaezkoa izanzen da ziklo hauek herri guzietan izatea, bainan birtartean herri bakoitze-

an alternatiba desberdina bilatu izan dira.

Aitzineko astean gai honen inguruan solasteko bilkura antolatu zuen Herrikoetxeak. Haur Hezkuntzan ari diren Berako hiru ikastetxeetako ordezkariak egin zieten gonbitea, baita eskola hoietako guraso elkarteeri ere. Erran be-

har da denak agertu zirela bilkurara, gai honen hauts dextente harrotu baitu dagoeneko.

Ikastetxeen arteko eztabaida

Proiektu honen aitzinean arrenkurak agertu dituzte Jesusen Bihotza eta Ricardo Baroja eskolek. Azken honetako Guraso Elkarteak Udalarari igorri dion ohar batetan, haurtzaindegia-aren ekimena Udalak hartu behar lukeela erraten dute, eta lehen-lehenik gaia aztertzeko komisio bat egitea proposatzen dute. «*Haurtzaindegia-aren beharra frogatuko balitz, haurtzaindegipublikoa eta euskalduna izan beharko lukeela us-te dugu*» dio oharrak «*eta gainera inondik ere ez Ikastetxe baten luzapena*».

Herrikoetxeak, bere aldetik, alderdi desberdinak bildu eta gai honi buruz solastuko direla adierazi du. Dударik gabe, soka luzea ekarriko du afera honek, eta gero ere berri gehiago emanen dizuegu.

flash

Presoen aldeko ekimen andana

Ortziralero Mukixu zubian egiten den enkarteladaz gain, Senideak, Batera eta Bortzirietako Herri Ekimena taldeek hainbat protestaldirako deia egin dute. Ortziral honetan, otsailak 25, Mukixutik Altzatera manifestazioa egingen da arratsaldeko 8etan, Batera plataformak antolatua. Bortzirietako Herri Ekimena, bertalde, Lesakan otsailaren 26an arratsaldeko 6etan egingen den manifestaziora joateko deia zabaldu du.

Agerrako etxeak

Joan den ortzeguneri berri kezkarri batek astindu zituen Babes Ofizialeko etxeak erosi dituzten herritarrek. Nonbait, etxeak egiten ari den enpresak behea jozuela eta, goizean langileei ez zieten lanera joaten utzi, eta lanak bertan behera gelditu ziren.

Hala ere, Promociones OCEC enpresak -lanen arduradun nagusiak- kezkatzeko motiborik ez dagoela jakinarazi zion Berako Herrikoetxeari, berehala bertze enpresa eraikitzaile bat kontratatu baitute lanekin segitzeko. Beraz, gauzek dauden bidetik segitzen badute bederen, obrak epearen barrenean akabatuko dira.



Berako elizako sakristia moldatzen ari dira auzolanean

10 bat beratar elkartu dira San Esteban elizako sakristia eta honen azpikaldeko gela eraberritzeko. Denbora batean kalabozoa izandu zen gela hori, bainan eliza erre zenetik zaborrez bete zegoen. Zabor hori ateri eta zolaberritu ondotik, Berako erretoreak erakusketa bat egiteko asmoa adierazi du. Izan ere, hainbat eskuizkribu zahar eta zeramika tresna baliotsu omen ditu altxatuak, eta hoiek jarriko ditu ikusgai.

Aldiberean, kanpo aldetik dorrera doazin eskailerak moldatu nahi dituzte beratar hauek auzolanean. Hori udaberri aldera izanen da.

Altzate, 19•948630786 •BERA

ie Iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekarietza
- Aseguruak

Kanttonberri | • BERA • Tel eta Faxa: 948 631 169

© 948630052 • Zalain • BERA

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

Javier Manterola

TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031 • BERA

➔ **LESAKA**

Martxoko lehendabiziko igandean etorriko zaizkigu aurten Zakozaharrak

Martxoaren 4tik 7ra ospatuko dira iñauteriak

AITOR AROZENA

Martxoaren 4etik 7ra ospatuko dira aurten iñauteriak. Azken urteotako ohiturari eutsiz, larunbatean ikusiko dira lehen mozarroak. Igandea zakozaharren eguna izanen da eta arrats partean beraien ibilbide baldarra egingen dute herrian barna. Astelehena karrozen eguna izaten da eta Fraindarrek baserri baserriko eskea egingen dute. Goizeko 9etan abiatuko dira Antoiutik eta auzoko etxeak bisitatu ondotik, Kattun bazkalduko dute. Asteartean herrian ibiliko dira. Talde honekin ateratzeko otsaila akautu baino lehen eman behar da izena Koxkila ostatuan, mila pezeta utziz.

Beti Gazteren urteko batzarra

Beti Gazte elkarteak heldu den ortziralean, martxoaren 3an, egingen du urteko batzarra, arratsaldeko 7,30tan lehen deialdian eta 8etan bigarren. Gai-ordena ohikoa izanen da: joan den urteko aktaren irakurtzea eta onespina, 1999an egindako ekitaldiak eta kontuen balantzea; 2000ko ekitaldiak eta aurrekontua; egoitzaren erabilpena



Zakozaharrek, musika bandaren laguntzaz, ohiko itzulia egingen dute igande arratsean.

Artxibokoa

eta konponketa; kontzientzi eragozpena, zuzendaritza batzordearen hautaketa eta eskari-galderak.

Tantirumairuko bi ikasle sarituak

Noingo aireportuak antolatutako marrazki lehiaketan Tantirumairu ikastolako bi ikasle sarituak suertatu dira. Sei eta hamabi urte arteko neska-mutikoei zuzenduta zegoen lehiaketa eta 154 ikasleren lanak aurkeztu ziren. Aireportuei eta hegazkinei buruz zuten ikuspegia azaldu behar zen marrazkietan.

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasle artean sari nagusia (mendi-bizikleta bat) irabazi zuen Josu Leiza Igarzabalek. Bigarren

saria, berriz, Aritz Telletxea Anzizarentzat izan zen (margotzeko materiala).

Sendabelarren tailerra

Joan den urteko arrakasta ikusita, aurten ere sendabelar tailerra antolatu du Lesakako Herri Eskolak, Udalararen laguntzarekin. Iaz bezalaxe, Laura Gurmino izanen da irakaslea eta lau orduko 15 saio egingen dira ortziral arratsaldetan (denetara 60 ordu). Matrikula Izarra okindegian egiten ahal da martxoaren 4a baino lehen. Izena ematerakoan 15.000 pezeta ordaindu behar dira. Tailer honek, saio praktikoa eta teorikoa izanen ditu eta gazteleaz egingen da.

▼ flash

❖ Ortziralean solasaldia Matxinbeltzanean

«Agotak, juduak eta ijitoak Euskal Herrian» izeneko solasaldia eskainiko du Alizia Stürtze historialariak ortziral honetan, otsailak 25, arratsaldeko 7,30etatik aitzinera Matxinbeltzanean. Ekitaldia Bortzirietako Euskaltegiak antolatu du.

❖ Abstentzioaren aldeko EHren martxa

ortzegun honetan, otsailak 24, ailegatuko da Lesakara. Arratsaldeko 7,30etan ongi etorria egingen zaio martxari Legar Baratzean. Gero manifestazioa eta ekitaldi politikoa egingen da plazan. Fernando Barrena izanen da solasean. 9,30etan afaria izanen da Arranon.



Pilotari buruzko solasaldi interesgarria ikastolaren 25. urteurrenaren ekitaldien barnean

Herriko Etxeko batzar aretoa leporaino bete zen otsailaren 15ean, Tantirumairu ikastolaren 25. urteurreneko ekitaldi berri batean. Pilotari buruzko solasaldian, Inaxio Errandonea, Mikel Goñi, Asier Olaizola, Rafa Errandonea, Iñaki Otxandorena, Jexux Mari Almandoz eta Joxe Jabier Taberna pilotari profesionalak aritu ziren. Mahainguruaren aitzinetik eta ondotik, sinadurak biltzen aritu ziren neska-mutiko guziak.

Argazkia: TTPII-TTAPA TB

XATURBETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

KIKKURUA
Ileapaindegia
 Tel: 948 637429
 Bittiriako Plaza, 3 behea
LESAKA

ETXEBERRIA
OSTATUA
 Plaza Zaharra • Lesaka
 © 948 637700

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
 Tfnoa.: 948 627 514
 Beheko Plaza 8, LESAKA

ETXALAR

Lizarietako lur mazela berreskuratu du Udalak

Sarako muga ondoko zelaia da

PELLO APEZETXEA

Bere denboran Diputazioari mugako etxola egiteko eman zitzaion lur eremua uste baino haundiagoa izan zen. Etxola eta inguruko metro batzuk bakarrik zirela uste zen. Gero, ordea, etxola Gobernuak itzuli zuenean, eta hura Erregistroan sartzeko zereginetakoan ikusi zen muga ondoko zelaidi osoa, 4.000 metro eta gehiago, eman zuela Udalak. Hori ikusirik, lur mazela osoa itzultzeko gestioak hasi zituen eta Gobernuak onartu du itzultzea.

Eskolako haurrak elurretara

Otsailaren 6tik 11ra, Landagain Eskolako hirugarren zikloko haurrak, 5-6garren mailakoak, elurretan ibili dira Belaguan. Bortz he-

rietako bertze hainbat haurrekin.

Igeriketa ikastaroak haurrentzat

Etxalarko Hotel-Bentako igerilekuan, ur beroko igerilekua dela baliatuz, igeriketa saioak egiten ari dira, aste-an bitan, egun bakotxean ordu bete. Bi monitorea dituzte, erakusle eta zaindaria, eta 20 saioko ikastaroa izanen da.

Azienda Segurantzarako Kofradiaren urteko batzarra

Otsailaren lehenbiziko igandean egiten da Batzar hori. Tximista edo eritasunagatik azizandaren bat galtzen duenari dirulaguntza ematen zaio. Nekazari jendea erretiroa hartzen ari denez, ordezkotzako gazterik gabe, sozioak gero eta gutiago dira, eta

azienda kopurua ere urtetik urtera tikiagoa. Hala ere, oraindik 30 sozio badira eta 270 azienda asegeratuak.

Oinezko bideak zaindu beharra

Lehen beharrik ibilarazten zuten jendea oinez, hori baitzen batetik bertzerajoateko modua, baseritik karrakara, auzo batetik bertzerara, bertze herritarare hainbatetan. Orain, gutiago mugitzen denez geroztik, gero eta jende gehiagok egiten du oinezko ibilaldia, osasun arazo irengatik. Baina ez da bide soberarik horretarako, arriskurik gabe ibiltzeko, alegia. Errepideetan, izan ere, autoak ugaritzen ari dira, Etxalarlatsa alde-



Kamioiak Etxalarko Bentaren kontra jo zuten otsailaren 17an

Otsailaren 17an, goizeko 7,30ak aldera istripu beldurgarria gertatu zen Etxalarlatsan. Iruñe aldetik zetorren kamioiak gurpila zulatu, kontrola galdu eta Etxalarko Benta jo zuten. Hotelaren jabeek ikari ederra hartu bazuten ere, zorionez, inor ez zuten azpian hartu.

Argazkia: Kamele Tolosa

rako zatian, Sara alde-rakoan, baina baita Zugarramurdirako bidean ere. Karrikatik hasita oinez lasai ibiltzeko, Goikolanda eta Bekolandako bideak lirateke egokiak, bat Olazarerraino eta bertze Santa Krutz ermitaraino pasatzen ahal balira. Orain, ordea, ez daude kondizionetan. Ez litzateke gauza txarra izan behar haunditzen jo-

anen baita urtetik urtera.

Etxalarko Arkupeak Elkarteko urteko eguna

Urtero biltzen dira beren eguna egitera, baina aurten aunitzez goizago. Lehen maiatzean edo apirilean eginkatu baitute. Elkarrekin presatzen dituen bidaiekin trabarik ez egiteko aintzineratu omen dute eguna.

© 948631076 • BERA

ANA
janaridenda
Bittiria, 41 • © 948637518
LESAKA

Txema Etxarte
Zolen akutzilatze eta
bernizatze profesionala
© 948 637439 • 670 215604 • 31700 LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESAKA

LINDY RREN BORDA
sagardotegia
• 100 lagunendako jantokia
• Sagardotegiko menua
• Gosariak eta bokadilloak
Ardoa ere kupeletik ematen da
Nabaz Auzoa • LESAKA
© 948 637212

BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

IGANTZI

Ortziral eta larunbat honetan izanen dira iñauteak

Haurrek heldu den asteen ere mozorrotuta segituko dute

OSKAR TXOPERENA

Iñauteak gain-gainean ditugula erraten ahal dugu, bihar arratsaldean hasiko baitira, Berri-zaunen eginen den mozorroen eskearekin hain zuzen. Hurrengo egunean, herri guzian barna ibiliko dira, Irisarritik hasi eta gaineko auzo guziak pasatu ondotik herrian bertan ilunabar aldera akautzeko. Arratsean *antzerkia* ere izanen da. Larunbat arratsaldez, berriz, haurren txanda izanen da, berrendu eta kalejirarekin.

Haurrek heldu den asteen ere izanen dute iñauteen inguruko ospakizunik. Asteazkenez, eskolako iñaute besta eginen dute, eta hurrengo egunean, ortzegun gizen eguna, etxe eta baserrietan barna haurrak eskean ibiltzeko eguna.



laz, argazkian ageri den bezala, frontoia "inauguratza" etorri zitzaigun apaiz kanpotarra. Ikusi behar aurten zeri buruz dugun larunbat arratseko "antzerkia".

Argazkia: Oskar Txoperena

Pili Iturbide Biltokiko lehendakari

Hurrengo alean aipatuko ditugun bertze gai batzuren artean junta berritzeaz ere ardu-

ratu ziren Biltoki Elkarteko batzarrera agertu ziren bazkideak. Zazpi ziren aukeratu beharreko lagunak, eta hauek izanen dira juntakide berriak: Lehenda-

karia, Pili Iturbide, eta bokalak Guillermo Txoperena, Josetxo Arburua Migelena, Jesus M^a Sein, M^a Jesus Telletxea, Marisol Dorronsoro eta Amade Arretxea.

Kooperatibarekin egun pasa

Otsailaren 17an, Arantza eta Igantziko kooperatibek Agropecuaria Navarrarekin batera Iruñea aldera antolatutako bisitaldian 41 igantziar izan genituen. Zenbait lantegi bisitatzeko aukera izan zuten (Caceco, Cárnicas Pamplona eta Pollos Iriarte) eta bazkaldu ondotik hitzaldiren bat ere izan zutela jakin ahal izan dugu.

Bertzalde, iaz bezala, bidaia antolatu du Parrokiak ekainaren azken aldera egiteko. Aurtengoa Galiza aldera izanen da eta joan nahi duenak maiatzaren 1a baino lehen eman beharko du izena.

Xofia Unanua serora hil da

Hainbetez urtez serora lanetan aritutako Xofia Unanua ilbeltzaren 26an hil zen, 95 urterekin. Bizi-bizirik daukagu oraindik Xofiaren irudia eliza txukun-txukun edukitzeko lanetan edo San Juan Xarreko bazterrak zaintzen. Goian bego!

Ortziral
E
 Ezk... 2... h... T... F... X... 3 15 21

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZUN S.L.
 Inkinaria eraikuntza
 Aldaketak eta despiezea
 Intenimendu mekanikoa
 Torno, fresadorak, errektifikadorak
 Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

LIBRERIA
 © 948631076 • BERA

Lanchas
 • Parketak - Tarimak
 • Kutxillatzea eta bernizatzeak
 • Estaldura orokorrak
 Bera © 948630735

MOLDAKETAK KONPONKETAK
 Gizon eta emakumeen arropan konponketak eta moldaketak egiteko zerbitzu azkarra

LIBRERIA

ZALAIN JATE TXEKA
 Zalain Auzoa
 © 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

RETOUCHERIE
 Colon Pasealekua 64, behea (Trenbideko zubiaren ondoan)
 © 943 660 292 • IRUN

LIBRERIA

ARANTZA

Kultur Etxea eta liburutegia antolatu nahi dira Herriko Etxean

Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatu zaio

ELIXABET ETA GARBIÑE

Herriko Etxean Kultur Etxe bat antolatze-ko intentzioa du Udalak. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatu diote. Lehenengo pisuan lekutu nahi den Kultur Etxea egiteko beharrezko dirua lortzea da Herriko Etxearen helburua.

Bertzalde, Kultur Etxeaz gain, liburutegi bat ere egin nahi da, eta momentuko kokalekua ganbara da. Proiektu interesgarri hau, Udaltxean egindako azken batzarrean eztabaidatu eta onartu zen.

Pilota eskola astearte eta ortzegunetan

Rafa Errandonea herriko pilotari gazteak, herriko haurrei pilota klaseak ematen hasi berri da. Guraso Elkarteak antolatutako ikastaro hau astearte eta ortzegunetan izanen da, arratsaldeko 4etatik aitzinera pilota plazan. Pilotan ikasi nahi duzuen guztiok aukera ederra duzue!

Iñauteriak ortzegunetik igandera

Asteburu honetan, ortzegunetik igandera, iñauteriak ospatuko di-



Argazkia: Elixabetz

EHren solasaldia eta afaria Zahar-Txokon

Martxoaren 12an izanen dira Espainiako Parlamentu berria osatzeko hauteskundeak. Hori dela eta, alderdi politikoak beraien kanpaina egiten hasi dira. Otsailaren 4ean, EHk antolatutako hitzaldia egin zen Zahar-Txokon. Oskar Goñik eskaintako solasaldian hogeitabatu lagun egon ziren eta gero, bertan afaldu zuten. Bertzalde, Udaleko azken plenoan hauteskunde egunean mahaian egonen direnak hautatu ziren. Mahai-buru Jaime Iturria Mitxelena egonen da eta bokalak Gregorio Mitxelena Ordoki eta Ana Mari Arburua Etxeberria izanen dira.

tugu herrian. Urtero bezala, mozorro zuriak etxez etxe eta auzoz auzo ibiliko dira beraien musika eta dantzekin diru eskean. Mozorroek txozna jartzeko eskaria egin zuten eta baimena lortu dutenez, plazan ja-

rriko dute beraien ostalua. Bertzalde, igande eguerdian herri kirol desafioa izanen da pilota-lekuan.

Bideak eta kanposantua

Auzo ezberdinetako

bideak moldatzeko 95.172.000 pezeta eta kanposantua haunditzeko 6 milioiko inbertsioa egingen da aurten. Nafarroako Gobernuak laguntza emanen du, oraindik kopurua ez bada zehaztu ere.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlizak
Orma antzinak	Moldurak
Leiboak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abuzandoea' Maczoa
Zahar antzokoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

**ALBERGIA
JATETXEA**

© 948 634179
ARANTZA

EDARIAK

Bidasoa R/62 - 31700 BERRA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • © 948 63 02 40 • BERA

MALERREKA

Oinarriak erakundearen sinadura bilketa kanpaina azken astean sartu da

Euskararen Lege berriaren aldeko mila firma bildu nahi dira Malerrekan

TTIPI-TTAPA

Oinarriak Plataformak Nafarroako Gobernuari Euskararen Lege berri bat egitea eskatuz burutzen ari den sinadura bilketa azken astean sartua da. Nafarroa osoan euskararen ofizialtasuna eskatuko duen lege berria aitzinera ateratzeko 25.000 sinadura bildu behar dira Nafarroan eta Malerrekan mila biltzeko helburua jarri da.

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateko Txema Aldabek azaldu duenez, sinadura bilketa «poliki-poliki aitzinera doaie. Herri batzuetan haserako helburua bete edo gainditu da. Beintza-Labaieren, pentsatutako 30 sinadurak bildu dira, Urrotzen 10 biltzea zen helburua eta 30 bildu dira, Saldiasen ere au-



Urrotzen haserako aurreikuspenak hirukoiztu dira: hamar sinadura espero ziren eta hogeita hamar bildu dira.

Artxibokoa

rrikusitako 30ak bildu dira eta Bertizarana osoan 100 bat biltzea espero zen eta Legasan bakarrik 60 baino gehiago jaso dira». Herri hauetan etxe etxe egin da sinadura bilketa eta hori nabari da emaitzetan. Donezte-

ben, berriz, lau lekutan utzi dira paperak bertetzeko, eskolan, eskaltegian, Kaxerna osatuan eta Mankomunitatean. Malerrekako edozeinek sinatu badezake ere, Donezteben bilketa motelago doa. Joan den astean biltze-

koak ziren Doneztebeko Euskara Batzordeko kideak bilketa azkartzeko asmoarekin.

Donamarian Maribi Eunat arduratzen da sinadurak biltzeaz. Elgorriagan, Aitziber Janaridenda; Oitzen, Iñaki Latasa; Sunbillan,

Miren Hernandorena; Iturenen, Joxe Bereau; Saldiasen, Aitziber Ugalde; Ezkurran, Jaione Zabalo eta Peio Zestau; Zubietan, Lino Elizalde eta Zubietako Ostaturua. Otsailaren 29an akituko da sinadura emateko epea.

ITUREN

Urte honetako plangintza osatzeko bilera eginen du Ibintza kultur taldeak

Otziral honetan, otsailak 25, arratseko 9,30etatik aitzinera, urte honetako plangintza osatzeko bilera eginen du Ibintza kultur taldeak Herriko Etxeko ganbaran. Gaia interesgarria eta garrantzitsua denez, jendea agertzea espero dute elkarte kideek.

Lore eta landareak
© 948 63 78 26
Frain auzoa • LESAKA

AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
Especialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

MALERREKAKO MANKOMUNITATEA

MALERREKAKO MANKOMUNITATEko
Zerbitzu Orokorrak behin-behinean aritzeko Euskara Teknikari bat oposizio-lehiaketa bidez hartzeko deialdia karrikaratu du. Izena emateko epea **OTSAILAREN 29an** akituko da. Informazio gehiago Malerrekako Mankomunitateko bulegoan.
Tel: 948 45 17 46 - 948 45 17 70

Donezteben, 2000ko otsailaren 11n.
Malerrekako Mankomunitateko
Presidentea,
Miguel SAN MIGUEL AZPIROZ

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

DONEZTEBE

Udalbiltzako kide egin da Doneztebeko Udala ere

Ahobatez hartu zuen erabakia batzarrak

PATXI IRIARTE

Euskal Herriko berze herri aunitan eta Baztan, Malerreka, Bortzirriak eta Leitzaldeko gehienetan bezalaxe, Udalbiltzako kide egin da Doneztebeko Herriko Etxea. Erabakia alkate eta zinegotzi guziek (Eako zazpi eta EHko bi) ahobatez onartu zuten. Udalbiltzako helburu eta proiektuekin bat egiteaz gain, Udal Hautetsien Biltzarreko kide izateko borondatea erakutsi du Doneztebeko Udalak.

Erreka eskubaloi taldea jautsiera fasean ariko da

Otsailaren 12an Anaitasunaren kontra jokaturako partidua 29 eta 27 galdu ondotik, jautsiera fasea jokatu beharko du Errekako senior eskubaloi taldeak.

Azkeneko partidu hori hil ala bizikoa zen, irabaziz gero, igoera fasean ariko bailitzateke, mailaz jausteko arrisurik gabe. Bigarren zatian zortzi gol alde izan zituzten doneztebarrek, baina azken minutuetan

buelta eman zioten Iruñekoek markagailuari.

Errekakoek maila mantentzeko itxaropen haundiak dituzte, batez ere taldeak azken partiduetan erakutsi duen joku-maila eta gogoengatik.

Ezpelura elkarteak ekitaldiak antolatu ditu Emakumearen Egunaren inguruan

Malerrekako Ezpelura Emakume elkarteak martxoaren 8ko emakume langilearen eguneko ekitaldi batzuk antolatu ditu, Udalen eta Club 10aren laguntzarekin.

Martxoaren 5ean, igandea, Trokolo antzerki taldeak «Pekin 36.002» funtzioa eskeinitu du arratsaldeko 7etan Doneztebeko Leku-Eder zineman, Udaletxeak emandako dirulaguntzarekin.

Martxoaren 8an, as-

teazkena, gorputz lengoia eta elikadurari buruzko solasaldia eskainiko du arratsaldeko 7etan IPESeko Llanos Pardo psikologoak, Doneztebeko Azkarreta lokalaren beheetiko aldean. Solasaldiaren ondotik, 9,30ak aldera, emakumei zuzendutako afaria izanen da Gazteluko Posadan. Afarian musika izanen dela eta afal ondoren zozketa sorpresa iragarri dute antolatzaileek.

Afarirako txartelak martxoaren 4a baino lehen hartu behar dira Doneztebeko Irrintzi eta Pakito ostatuetan edo Gazteluko Posadan bertan (948450105, Itziar), mila pezetako seinalea paratuz.



Iñauteriak baino lehen ez eritu, badaezpada.


Foto Zaldúa

Martxoaren 2tik 5era ospatuko dira Doneztebeko iñauteak

Martxoaren lehen-dabiziko egunetan, 2tik 5era ospatuko dira aurtengo Doneztebeko iñauteriak. Onena ortzeguneko eta ortziraleko izanen da, etxez etxe egiten den eskearekin eta eskolako neska-mutikoen desfilearekin. Larunbata da egun handia, arratsaldeko karrozen eta moztorroren desfilearekin.

Aipatu behar da dagoeneko hasiak direla herri bazkari eta afarietan parte hartzeko

izenak biltzen Titi ospatuan. Ortzeguneko lehen-dabiziko afaria izanen da Belarran, Malerreko zopekin. Ortziralean, Santamarian bazkaria eta Ameztian afaria. Larunbateko bazkaria, ohi denez, goiz-goiz egiten da, 12,30ak aldera Arozean. Kontuan hartu behar da gazteek abudo altxatu behar dutela desfilean ateratzeko. Azkeneko bazkaria igandean egiten da Jubilatuen egoitzan.



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Ameztia karrika • DONEZTEBE
Tfnua: 948 45 03 06

LAKANBRA MOTOAK

**Belar moztekoak
Lurra iraultzekoak
Desbrozadorak**

Parrokia 18
© 948 450082
DONEZTEBE

PREZIORIK ONENAK

ZERBITZU ZIURTATUA

H. Lopez itargintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Itargintza industriala
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

ELGORRIAGA

Bainuetxearen proiektua otsailaren 29an onartuko du Sustapen Ministeritzak

Bederatzi proposamen aurkeztu dira, horietatik hiru Iruñekoak

TTIPI-TTAPA

Espainiako Gobernuko Sustapen Ministeritzak heldu den asteartean, otsailaren 29an, emanen du Elgorriagako bainuetxea egiteko proiektuaren erredakzio lanaren ardura. Guzira, hamar arkitekto aurkeztu dute beraien proposamena eta horietatik hiru nafarrak dira. Proiektua idazteak 33 milioi pezetako aurrekontua du eta lanen aurrekontua, berriz, 860 milioi pezetakoa da. Horretaz gain, 200 milioi beharko dira bainuetxea mobleztatzeko eta instalazio osagarriak egiteko.

Erran bezala, bederatzia arkitektura-bulego eta profesionalak aurkeztu dute beraien lanak, horietatik hiru Iruñekoak: Manuel Enriquez Jimenez, Capilla-Vallejo Arquitectos eta Maite Apeztegia Elso (Zubietako errota-



Garai bateko bainuetxea zegoen inguruan, bainuetxe berria eta hotela egingen da. Guzira mila milioitik goitiko aurrekontua izanen du. Artxibokoa

ren zeharberitzea egin zuen arkitektoa). Haue-taz gain, beraien proiektuak aurkeztu dituzte arkitektu-bulego hauek: Donostiako Gloria Ariztegi Huarte; Madrilgo GOP Oficina de Proyectos, ACTX, SA, Temperaturas Externas Arquitectos, SA eta Jose Maria Perez Gonzalez

y Fernando Gaforio Nebreda eta Zaragozako Emilio Jose Rivas Soria.

Behin proiektua idazteko ardura eman eta sei hilabeteko epea izanen du arkitektuak oinarritzko proiektua eta bainuetxearen eta hotelaren segurtasun-iker-keta egiteko. Gehienez ere 32.990.748 pezeta

jasako ditu lan horren truke.

Proiektuaren erdia Espainiako Sustapen Ministeritzak finantziatuko du, Nafarroako Gobernuak %30 ordainduko du eta Elgorriagako Herriko Etxeak, elkarte pribatu baten bitartez, gainerako %20a ordainduko du.

SALDIAS

Oihan aprobetxamendurako enkantea martxoaren 4an Saldiasko Herriko Etxean

Martxoaren 3an, eguerdiko 12,30etan egingen da Saldiasko Herriko Etxean Auxidi-Gorostietan inguruan oihan aprobetxamendua hartzeko enkantea. 569 pagoek osatzen dute lotea, 555 metro kubiko zur (5.769.400 pezeta, BEZ barne) eta 76,5 metro kubiko egur-xeh (198.900 pezeta, BEZ barne) emanen dutenak. Beraz, lote osoaren haserako prezioa 5.968.300 pezetakoa da. Enkantea ahoz egingen da eta bertan parte hartzeko, haserako prezioaren %5 fidantza gisara uzteaz gain, enpresa-kalifikazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

ARANO

Etkez etxeko eskea igande honetan egingo da

Elkartean bazkalduko dute zomorroek

Urtero bezala, igande honetan, otsailak 27, Aranoko gazteak etkez etxe ibiliko dira puska biltzen. Eskertzeko dantza saio batzuk egingen dituzte. Herriko auzo

guztiak pasa ondoren, bertako elkartean bazkalduko dute "zomorroek". Arratsaldeko bostak aldera ohiko zahagi-dantza egingo da herriko hiru leku ez-

berdinetan. Afal ordu-rarte trikitilariak izango ditugu giroa alaitzen. Ondoren, bertso afari batek emango dio amaiera hain aspalditik datorren ohitura zahar



Ohiko zahagi-dantza herriko hiru leku ezberdinetan dantzaten da.

honi.

Iñauterietako batzordeak gonbidapena

luzatzen die "zahagi dantza" berezi hau ikusi nahi duten gutzietan.

BERTIZ

Landa etxeek bezeroen iritzia bilduko dute inkesten bidez

Hiruak-Bat elkartearen barnean dauden Baztan, Malerreka eta Bortzirietako landa-etxeek bezeroen iritzia eta proposamenak bilduko dituzte, beraien instalazio eta zerbitzuaren kalitatea hobetu asmoz.

«Lagun gaitzazu hobetzen» leloa izanen du Bertizko 113 landa-etxeek eginen duten inkesta kanpaina honek. Galde-tegia bezeroen artean banatuko da. Erantzuten dutenen artean bi zozketa egingen dira, uztaila eta abenduan. Landa-etxeetako batean bi pertsonendako asteburua zozketatuko da, beraien laguntza eskertu asmoz. Inkestan zenbait galdera egiten dira: bezeroaren jatorria, oporrak igarotzeko eskualde hau eta landa-etxe bat aukeratzearren arrazoia eta landa-etxeen eskaintza zein modutan ezagutu zuen. Gisa berean, aukeraturako landa-etxearen instalazio eta zerbitzu guzietan puntuazioa ematea eskatzen zaio. Landa-etxean egiten ahal diren hobekuntzak aipatzea eta, azkenik, kalitatea eta prezioaren arteko orekaren balorazioa eskatzen zaio.

Sagrario Goñi, Hiruak-Bat elkartearen lehendakariaren ustez, inkestak «gure etxeen kalitatea eta dauden hutsuneak ezagutzeko baliagarriak izanen dira». Goñiren ustez aurtengo urte ona izanen da: «Aste Santurako eta Maiatzaren leheneko zubirakotia ez dago deus libre eta udako erreserbak ere egiten ari dira».

Jarduera-lizentzia egin eta esku-aldatzearen gaineko zergak arautzen dituen ordenantza onartu du Bertizaranako Udalak

Sailkatutako eta kalterik gabeko jarduerengatik egin edo eskuz aldatzen diren lizentzien gaineko zergak arautzen dituen udal ordenantza behin betikoz onar-

tu du Bertizaranako Udalak. Jarduera ezartzen den lokalaren azaleraren arabera ordaindu beharko da: 50 m² bitartean, 300 pezeta metroko; 51 eta 101 m²

bitartean, 280 pezeta; 101 eta 500 m² bitartean, 235 pezeta eta 501 m² baino gehiago, 220 pezeta metroko. Xehetasun gehiago Bertizaranako Udaletxean.



...C. Z... t n, ur IKUTX KI untz n...
 Esk... k... urk... k... m... r... n...
 ...L... n... k... t... n...
 ...C... L... Z... U... N... E... Z... N... S... N...
 ...C... n... l... u... d... E... z... l... c... n...
 ...z... n... z... r... r... ...C... n... l... i... n...
 ...m... u... h... r... ...s... e... z... h... u... n... u... e...



GOIZUETA

Aurtengo iñoteak martxoaren 5etik 7ra

Martxoaren 11rako ere festa ikaragarria prestatu da

ESTEBAN AROZENA

Programari dago-kionez nobedade haundiegirik ez baldin bada ere, kategorikoak izateko osagai guztiak dauzkate aurtengo iñoteek. Zaldun-iñote egunean egingen dute zahidantza eskolako umeek. Arratsaldeko eta gaueko dantzaldia, berriz, Xapó taldearen esku egonen da.

Asteleheneko base-rietako puska-biltze eguneko berrikuntza nagusia, ilunabarreko albokari kalejira izanen da. Trikizio taldeak joko du ilunabar eta gauean. Astearte-iñoteam tradizioak zuzen beteko dira aurten ere, hau da, goizeko 10etan hasiko den herriko eskea

eta arratsaldeko zahidantza. Berbena berriz, Hernaniko Trakets taldearekin.

Berri Txarrak herrian

Iñoteen ondorengo larunbatean ere festa haundia izaten da azkeneko urteotan, eta aurten ere honelaxe izanen da. Mozorroen taldeak Zizkuitz txaranga ekarriko du karnabalei merezi duten bukaera emateko. Gaztetxekoek ere, ez dute gutxiago izan nahi, eta martxoaren 11ko gauerako Berri Txarrak taldearen kontzertua antolatuta dute.

Lehendakari berria Umore Onan

Juan Ramon Apezteak beteko du hurren-

go bi urteetan Umore Ona elkarteko presidentaren lekua. Mikel Gastón eta Koro Zabala ere komisiorako hautatuak izan ziren otsailaren 5ean burututako asanbladan. Aipagarria, bederatzi gazte gehiago bazkide direla orduz geroztik. Modu berean, aipatzeko modukoa da ur-



Ijitoen karrorik ikusiko dugu aurten? Artxibokoa

tean behin egiten den detatik 26 bakarrik azaldu zirela. asanbladara 200 bazki-



Eskolako DBHko ikasleek TTPI-TTAPA bisitatu zuten

Otsailaren 9an Berara bisita egin zuten Goizuetako eskolako DBHko bigarren mailako ikasleek. TTPI-TTAPA aldizkaria eta telebista nola egiten diren ikusi ondotik, kamara aurrean aurkezle lana ere egin zuten telebistarako.

Argazkia: Asier Gogortza

ARESO

Santa Ageda bezperan kantari atera ziren haurrak

Otsailaren 15ean, berriz, Iruñeko Planetariora bisita egin zuten

JUANA M^a SAIZAR

Santa Ageda bezperako arratsaldean eskolako umeek irakasleekin batera herrian zehar koplak kantatuz atera ziren. Dendari eta etxe-koandreei egindako koplak abestu zituzten, es-

kean zebiltzan artean.

Beste egun batean, otsailaren 15ean, Iruñeko Planetarioa ikustera joan ziren eta han bertan «*Asto bat Hipodromoan*» Bernardo Atxagaren ipuinaren kontakizuna entzun zuten.



Santa Ageda bezperan eskolako neska-mutikoak eta irakasleak kantari atera ziren.

Argazkia: Juana Mari Saizar

Hauteskundetako mahaia

Martxoaren 12an burutuko den Espainiako Parlamenturako hau-

teskundetako mahaia osatuta dago herrian.

Lehendakaria Juan Pellejero Mugerza izanen da; lehenengo bo-

kala, Joxe Angel Alvarez Azpiroz eta bigarren bokala, Jose Joaquin Saizar Tellexea.

Bi oihan aprobetxamendu enkantean salduko ditu Udalak

Leitzelarrean eta Trunkadan daude bi loteak

JOSEBA AZPIROZ

Udalak, oihan aprobetxamendurako bi egur lote atera ditu subastan. Bat, Leitzelarreko eremuan dagoen 4.774 alertze japoniar eta insignis pinuz osatutakoa. Guztira, 1.166 metro kubiko dira eta hasierako prezioa 4.261.014 pezetakoa da. Bestea berriz, Trunkadan dagoen 1.830 insignis pinuz osatutakoa da. Lote honen hasierako prezioa, 8.930.785 pezetakoa da.

Esan behar, proposamen ekonomiko bakarra aurkeztu beharko dela bi loteentzat. Beraz, hasierako prezioa, 13.191.799 pezeta, BEZ kanpo, izan dena. Proposamenak martxoaren 17ko eguerdiko hamabiak baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan.

Martxoaren 12ko hauteskunderako mahaiak osatu dira

Hilaren 15ean, Madrileko Gorte Nagusietarako martxoaren 12an eginen diren hauteskunderako mahaiak osatzeko, otsailaren 15ean egin zen zozketa. Honela osatuak gelditu ziren herriko lau hautesmahaiak. Ordezkoak ere hautatu ziren:

• 1. mahaiian:



Leitzelarreko eremuan 4.774 alertze eta pinu aterako dira. Trunkadan, berriz, 1830 insignis pinu.

Artxibokoa

Mahaiburua: Miguel Aldaia Buldain; 1. Mahaikidea: Maria Arrate Aierdi Barriola; 2. Mahaikidea: Maria Reyes Zestau Zabaleta.

• 2. mahaiian:

Mahaiburua: Patxi Joseba Lizartza Saralegi; 1. Mahaikidea: Maria Victoria Sagastibel-tza Bengoetxea; 2. Mahaikidea: Naiara Billabona Zelaieta.

• 3. mahaiian:

Mahaiburua: Ibon Aranberri Uranga; 1. Mahaikidea: Maria Jesus Barriola Zabaleta; 2. Mahaikidea: Jose Antonio Erbiti Treku.

• 4. mahaiian:

Mahaiburua: Alberto Martinez Rodriguez;

1. Mahaikidea: Nere Roda Azpiroz; 2. Ma-

haikidea: Juan Jose Billabona Saralegi.

Pentsoria



Itziar ALDUNTZIN

EITBk banatutako Iparragirre Saria irabazi du Euskadi Gazteko esatariak

Bi urtez Euskadi Gaztean aritu ondotik, EITBk banatzen dituen Iparragirre Sariatako bat jaso du Itziar Alduntzin 23 urteko lei-

tzarrak. «Txikitatik irratia gustuko nuen, egun osoa irratia entzuten izaten nintzen. Irratigintzan Euskadi Gaztean hasi nintzen, bekadun gisa, eta sei hilabete pasatu eta gero Euskadi Gazteko probetara aurkeztu eta hartu egin ninduten. Orain mikrofonoaren menpean erori naiz, hunkitu egiten naiz haren aurrean, eta erabat deskonektatzen dut». Joan den urtean, Uhinak astintzen saioa aurkezten zuen eta aurten, berriz, Topaleku. Top Gaztea zerrenda mitikoaz ere bera arduratzeko da. Saria pozik hartu du Itziarrek: «Nire lanaren frutua dela pentsatzen dut, baina nire lankide guziek ere merezi zuten, lan haundia egiten dutelako. Egiten dudana hobetzeko gogoia eman dit».

flash

Abstentzioaren aldeko manifestazioa

Leitzako Euskal Herritarrok taldeak, ostiral honetan, otsailak 25, arratsaldeko 8etan, «Utzi pakean herriari. Alde hermendik. Abstentzioa» lemapean eginen den legeztatutako manifestazioan parte hartzeko deialdia luzatu du.

Aurrera

futbol taldea ederki ari da denboraldi honetan. Bigarrena dago eta Preferentera itzultzeko itxaropenak sendo mantentzen ditu.

Leitzako Zinema

Ostiraletan 10,30etan

Larunbatetan 7,30etan

2000-02-25/26

Rosetta

2000-03-03/04

Tres estaciones

2000-03-10/11

Un marido ideal

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Egoien 32
Tfnoa: 948 510 086 • LEITZA

BAZTAN

Balleko Udalak 93 milioiko inbertsioa egingen du Ordokiko industrialdean

Ingurua urbanizatu eta sail ezberdinetan banatuko da

TTIPI-TTAPA

Balleko Udalak 93 milioi pezetako inbertsioa egingen du Arizkongo Ordoki industrialdean. Horretarako, 22.534.189 pezetako dirulaguntza hartuko du Nafarroako Gobernuak Industria Departamentutik. Ordokiko industrialdea urbanizatzeke proiektua gauzatzen ari da gaur egun. Ingurua urbanizatu ondotik, sail ezberdinetan banatuko da eta bertan egingen den inbertsio zehatza 92.827.950 pezetakoa da.

Nafarroako Gobernuaren laguntza bi arlotan banatu da. Alde batetik, proiektua idazteko gastu osoaren (5.666.427 pezeta) %70 ordaindu du (3.968.599 pezeta) eta bertetik 18.565.590 pezeta jarri ditu, hau da, urbanizazio lanen, zuzendaritza teknikoaren eta lur sailak erosteko finantziazioaren %20a.

Jakina denez, azken urteetan enpresa batzuk kokatzen joan dira Arizkongo Ordoki auzoan. Baztan Balleko Udalak inguru hori antolatu eta industrialde gisara sendotu nahi du eta horretarako eta horretarako gauzatuko da inbertsio hau.



Zola eman dute Arraiozko saihebidetan

Arriozko saihebideari zola eman diote eta laster ibilgailuak bertatik igarotzeko moduan izanen dira. Errepide berriak 1.615 metroko luzera izanen du, hiru metro terdi zabaleko bi bide izanen ditu eta metro terdiko bidebaterak bi aldeetara. 32 metro luze dituen zubi berria ere egin da Baztan erreka pasatzeko. Lanen aurrekontua 265 milioi pezetakoa da eta Azpiroz eta Saralegi enpresak egin ditu.

Argazkia: Asier Gogortza



Erratzuko emakumeen bazkaria San Anton egunean

Urteroko ohiturari eutsiz, Erratzuko emakume talde honek bazkaria izan du San Anton egunean. Aski ongi nabari da ederki pasatu zutela eta heldu den urtean berriz ere bilduko omen dira. Bitartean, Aupa Erratzu!

Argazkia: Xabi Ospital

flash

Markatu gabeko zuhaitzak

aprobetxatzeagatik 304.000 pezetako kalte-ordaina eskatu dio Balleko Udalak Bizkaiako Iurreta herriko Central Forestal enpresari. Zehazki, Gerezibeltzeta (Balgordi) eta Rakaste (Otsondo) inguruetan egindako bakan-tze lanetan, markatu gabeko zuhaitzak moztu zituzten balio eskasekoak zirela-koan eta Baztango udaltzainek salatu zuten.

Aurrekontuaren %0,7a herrialde pobrentzat

Balleko Udalak urteko aurrekontuaren %0,7a Hirugarren Mundua delakoari bideratzea erabaki du. 4.450.000 pezeta banatuko dira pertsona eta erakunde hauen artean: Agustín Elizalde, milioi bat; Felipe Santesteban, 750.000 pta; Joakina Aleman, 500.000 pta; Euskal Fondoa, 800.000 pta; Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioa, milioi bat eta Martin Corazzin, 400.000 pta.

Iruritako Medikuko kontsulta

berria egiteko 17 milioi pezetako dirulaguntza jaso du Balleko Udalak Osasunbideatik.

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

Gierreserren
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Girona
Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • **ORNOZ-MUGAIRI**

ARROPA DENEIA
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

BAZTAN

Belateko tunela itxi egin dute bertze behin

Inauguratu zutenetik bi urte bete direnean lau aldiz itxi dute

TTIPI-TTAPA

1997ko azaroaren 27an inauguratu zutenetik laugarren aldiz itxi zuten otsailaren 12an Belateko tunela. Aitzinetik, harriak eta lurra erori zirelako 1998ko uztailean eta 1999ko maiatzean itxi zuten tunela. Iazko abuztuan, berriz, «tunelaren egoera ikusteko» hiru astez itxia egon zen. Oraingoan ez da lur erorik izan, tunela estaltzen duen geruza-zati bat erori dela baizik. Horren ondorioz, trafikoa Belate gaineretik desbideratu zuten eta biharramonean Valentziako kamioi bat irauli zen.

Adituek diotenez, tunela estaltzen duen ormigoiak ez du loditasun nahikorik. Nafarroako Gobernuak ikerketa bat irekiko duela adierazi du, baina bitartean inguruko bizilagunek beraien arrenkura erakutsi dute berriro ere.

«Gero eta gutiago fidatzen gara errepide honetaz. Moldatu duten bakoitzean betirako izanen zela erran dute, baina ikusten denez, hori ez da horrela».

Soluzioa, hasera-haseratik ormigoia gehiago botatzea izanen zen, baina horrek, lanak garestitzeaz gain, zortzi hilabetez edo urte betez gibelaratuko zituen lanak. Hori egin ez zutenez, geroztik petatxoka ari dira behin behineko moldaketak egiten.

Eguzkilore emakume elkarte

Eguzkilore izeneko emakume elkarte sortu da Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdin. Momentuz 42 emakumek osatzen dute eta orain etxeko eta autoko konponketak ikastarotan sartuak daude burubelari. Asteartero bilduzen dira Arizkunenea Kultur Etxean. Elbeteko Mertxe San Vicente da



Hiruhilabete mugitua hasi dute Baztan ikastolan

Baztan ikastolako ikasleek hirugarren hiruhilabeteari hasiera ona emateko arrakastatsuak suertatu diren ekintza batzuetan parte hartu dute. Honela, bigarren astean Xorroxin Irratia ikastolan izan zuten. Haur guztiek beren irratsoiak egiteko aprobeztatu zuten. Hurrengo astean 6. mailakoek Ipar-Ski kanpaina Otsagin aste zoragarria pasatu zuten. Santa Ageda bezperan Elizondoko karririk kantuz eta koplekin alaitu zituzten. Orain, inautea prestatzen ari dira.



elkarteko lehendakaria. Elkartearekin harremanetan jartzeko edo ikastaro ezberdinetan izena emateko 948 580313 telefonora deitu (Paula).

Elizondoko saihebidia

Arraioztik abiatu eta Irurita, Lekaroz eta Elizondon barna pasatu ondoren Elbetara ailegatu-

ko den saihebidia solasgai izan zuten otsailaren 6an Elizondoko batzarrean. Alkate eta kargodunek trazatuaren informazioa eman zuten.

ORDOKI LIKOREAK
 Tel.: 948453410
 Fax: 948453378
ARIZKUN

ERRETEGIA
 Parrilan egindako haragi eta arrainak

DOLATXEA
OSTATUA

Inauteriak ongi pasa!

© 948 453002 • ARIZKUN

LABAYEN
ostatua

- Pintxoak
- Kaxuelak
- Plater konbinatuak
- Bokatak

Santiago 47
 ☎ 948 580338
ELIZONDO

SENPERE

«Berri berria» elkarteak sortzekotan dute herriko hamabortz gaztek

16garren Herri Urratsa maiatzaren 14an ospatuko da

FRANCK DOLOSOR

«Berri berria» batasunaren xedea da herri-tarren arteko loturak azkartzea eta gazteriarri animazio eta aktibitate berriak proposatzea. 1999ko apirilaz geroz, hamabortz bat gazte ortziralero biltzen dira. Aski fite, informatika atelierra muntatuko dute eta ateraldiak proposatuko.

Martxoaren 10ean, Ibarrungo «Inharrea» etxaldean, musika kontzertu bat iraganen da. Sartze-txartelekin, preserbatiboak banatuko dituzte. Gazteen artean prebentzio lana seguratu nahi lukete, horrentzat harremanak abiatuak dituzte toxikomaniaren kontra lanean ari den ARIT batasunarekin. Borondate on eta haundiko gazteak biltzen ditu «Berri berria» taldeak ortziralero elkartetxean 7etariki goiti.

Herri Urrats maiatzaren 14an

Lan talde guztiak kariskan ari dira lanean



Ihauteriak giro ederrean

Pasa den otsailaren 12an ihauteriak ziren. Giro ederrean ospatu ziren, xingar eta arroltze eske ibili ziren gazteak etxez etxe. Studio de la Nivelles

maiatzaren 14an «Gaurdanik geroa» leloarekin ospatuko den Herri Urrats besta prestatzeko. Beti bezala, animazio frango izanen da ikastolen aldeko besta huntan aintziraren inguruan. «Hemendik At» taldeak musikatu ditu Itxaro Bordaren hitzak. Jantzi berriak salduko dituzte, haurren xokoa haundituko da familiak errezibitzeko gisan eta ostatu berri batek alko-

lik gabeko edatekoak salduko ditu. Aurten igandeko besta mugarituko da Herri Urrats ospakizuna, gaupasarik ez baita izanen bezperan Saran. Herri Urrats beharrezkoa dute Iparraldeko ikastolek, dirulaguntza haundiegirik ez baitute 21garren mendean sartuko garelarik.

Seaskak ezezkooa Frantses hezkundeari

Seaskak ezetza eman

dio frantses hezkunde nazionalak egin dion proposamenari. Ikastoleri proposatu zaiote publiko bilakatzea. Estatuak pagatuko lituzke eskola-emaile eta ikasgelen etxeak, baina galdetzen da frantses gehiago erakastea ikastolan eta ez da garapen planik pentsatzen sarea haunditzeko gisan.

Seaskak dio gure mintzairaren aldeko 30 urteko lana errespetatu

flash

Amicale Laique batasunak espaniola ala inglesa dakiten bolondresak miazten ditu mintzapraktika egiteko. Mintzairak elkartetxean erakusten dituzte eta ikasleek bolondres hauen laguntza behar lukete espaniolez ala ingelesez mintzatzeko.

Kirol berriak

Nesken eskubaloin ekipak benejakekoa garaitu zuen gan den otsailaren 5ean, 23 eta 7. Pasakan berri, Larrea-Lacroix-k galdu zuten Mascotena-Laduche azkaindaren kontra, 8 eta 13. Paletan, azkenik, A saileko Comet eta Seillan neskek Kanboko Leizo eta Chemberoren kontra irabazi zuten, 40-36.

behar dela. Pedagogiaz eta frantseseraren erakasteaz, ikastolek diote 6 urtekin euskaraz ikasi behar dela idazten irakurtzen eta gero 7 urtetarik goiti frantsesa ikasten. Hau ez bada errespetatzen ezin dira bi mintzairak untsa ikasi.

Hortan fermuki atxikiko du Seaskak baina frantses gobernuarekin segituko du negoziatzen ondoko martxoan.

Kutxa Kutxa Kutxa
Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa
Kidetzak berri bat!
7, Portuko Karrika-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

RESTAURANT MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingoa Lepoa
☎ 948 631209

ola
SAGARDOTEGIA
250 lagun eserita
Klimatizatua
Sagardotegi menua
102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel: 943 623 130

SARA

Martxoaren lehen larunbat eta igandean ospatuko dira ihauteriak

Ortziralean, lehen aldikoz hiru eskolako haurrak elgarrekin aterako dira

ANA MARI ETA FRED

Ihauteriak martxoaren 4 eta 5ean ospatuko dira. Herriko gazteak etxez etxe ibiliko dira larunbatean. Ibilaldia Ihalarren hasi eta Lehenbizkai alderat hurbilduko da, Animaniatik pasatuz. Larunbat arratsean berriz, Tabasco taldeak dantzaldia eskainiko du Herriko Etxeko edantegian. Biharamunean, Zazpiak Bat taldeak dantza ikusgarria eskainiko du plazan, eta saratarrek zanpantzar epaitu eta erreko dute. Eguerdi, Olhain ikastolak bazkaria prestatuko du Omordia gelan. Izenak eman nahi dutenek Bittori deitu behar dute 0559542732 zenbakirak.

Lehen aldikoz, herriko hiru eskolek bat egiten dute ihauteri kari. Martxoaren 3an, ortziralara, goizeko 11tan, haurrek mozorroturik ibilaldia egiten dute plazan barna. Gero, kiroldegian elkartuko dire bazkaltzeko eta arratsaldean animazioak eskainiak izanen zaiote, Sen-



Ihauteriak martxoaren lehen asteburuan ospatuko ditugu. Artxibokoa

pereko antzerki taldea etorri beharra baita.

Euskal presoak Euskal Herrirat

Otsailaren 11n jende multxo polita bildu zen plazan euskal presoak Euskal Herrirat hurbilduak izan daitezten galdetzeko. Euskal Herri guzian mobilizazio ainitz baldin bada ere, Frantziak eta Espainiak bide beretik segitzen dute, eta oraino ere, ez da aintzinamendu izpirik egin arlo horretan.

Sagarnotegirat

Arrakasta handia bildu du joan den otsailaren 4ean Sarako Gau Eskolak Larregain sagarnotegirat antolatutako ateraldiak. Sagarnotegia Hernani aldeko mendi kaxko batean kokatua izanik, autobuseko gidariak gaineraino ailegatzeko aski lan izan du (eta itzultzeko oraino gehiago!). Hala ere, horrek ez du hango besta giroa trabatu. Sagarnozaleek Santa Ageda bezperako giroa eta sagar-

noaren kalitatea dastatu ahal izan dituzte.

Gaztetxearen biltzarra

Otsailaren 5ean Gaztetxearen biltzar nagusia izan da. Bildutako guziet azpimarratu dute beharrezkoa zela dinamika berri baten sortzea. Ildo beretik, bulego berri da. Jeronimo Barrenetxe lehen-dakari gelditzen bada ere, Iban Duperi eta Xan Harriaga dira diruzain eta idazkari berriak.

Mus berriak

Frantziako 38. mus txapelketaren kanporaketa bururatu da Herriko Etxeko Edantegian. Bortz bikote ateri dire garaile eta txapelketa segituko dute kantonamenduko bertze taldeen kontra arituz. Hauek dira Sarako ordezkariak: Kako Goietxe eta Jean Marie Pradere; Ande Iribarren eta Mattin Pikabea; Stéphane Agerre eta Marie Pierre Iribarren; Isabelle Behotegi eta Kattin Goietxe; Jean Behotegi eta Germain Larzabal.

Bertzalde, aurten ere Sarako Izarra errugbi elkarteke mus txapelketa jokatu zen otsailaren 5ean, Omordia gelan. Kako Goietxe eta Jean Marie Praderek final handia irabazi zuten; Xabier Tapia eta Stéphane Agerrek kontsolagarria eta, kontsolagarri tikian Sébastien eta Xabi Saint Martin. 40 bikote aritu ziren musean baina 110 lagun bildu ziren afaltzeko.

Sokatira

Sarako Indarra sokatira elkarrekin ekipan sartzeko interesatu guzietei deia luzatzen die. Entrenamenduak astearte eta ortziral arratsez izaten dira. Tel: 05 59 542286 edo 0559542058.

Ioredenda

Albistur, 39-K
627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

Kalitatezko bakailu gazitua

SALAZONES UDANA, S. L.

ESKAINITZA BEREZIA SAGARDOTEGIEN Tzat

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23.pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

MUSEO ETXERRE

0559542058 • Tel. 948 631536

Sagardotegirat itzulia egin dute larunbat honetan herriko gazteek

Ortziralean, mus txapelketa eta presoen aldeko mobilizazioa

MARGARI ETA KORO

Ez dakigu bestazale fama hartuko dugun, bainan bertze berrien faltan ez daude gaizki orain aipatuko ditugun hauek.

Aurten hirugarren urtea da sagarnotegi batera irteera antolatzen dela. Gan den otsailaren 19an joan dira eta usadian bezala Urnieta-ko Elutxeta sagardotegia izan da hautatu dena, hauei erosten baitzaie gaupasarakoz sagarinoa. Urteik urtera arrakasta haundiagoa lortzen ari da, eta honetan autobusa exkas gelditu da.

Azketa ostatuan mus txapelketa ortziral honetan

Ortziral honetarako, otsailak 25, Azketa ostatuan mus txapelketa antolatu da (Izenak Ana



Otsondon barna Erratzura, igande honetako mendi irteera

Igande honetarako, otsailak 27, antolatu du herriko mendi taldeak hurrengo irteera: Zugarramurditik abiatu eta Otsondon barna pasatuz, Erratzura ganen dira. Bazkaria Erratzuko Ostatuan egingen dute eta izena lehenbailehen eman behar da Posadan. Argazkia, gan den urrikoa da, Ezpeletara egingen bidaiakoa. Mondarrain mendia ageri da urrunean.

Beleni eman behar zaizkio). Horrez gain gau osoan opil-jatea izanen da eta giro ederra segurik.

Presoen aldeko mobilizazioak

Euskal Presoak Euskal Herrirat ekartzea egiten ari diren mobili-

zazioen barnean, eskualdeko hurrengo elgarretaratzea ortziral honetan, otsailak 25, egingen da Zugarramurdin.

Ornoz-Mugairiko saihebidetaren proiektua onartu du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamenduko Zuzendari Nagusiak Ornoz-Mugairiko saihebidetaren proiektua teknikoki onartu zuen otsailaren 10ean. Horretaz gain, errepide berriak ukitzen dituen lurren jabeen zerrenda ere argitaratu da eta hauek martxoaren 9a arteko epea izanen dute alegazioak aurkezteko. Proiektua Baztango Balleko Etxean eta Oronozen daude interesatuen esku.

Saihebidetako 1.680 metroko luzera izanen du eta haserako aurrekontua 1.200 milioi pezetakoa da. Zozaiadoneztebe errepide proiektuan aurikusia dagoen biribilgunean hasi eta Oronozko hegoaldeko joanen da. 420 metroko tunela eta zubi bat egingen dira, Orabidea-Otxondo bigurutzeko aldean atarako da bide berria.

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

ETXANDI TXOKO
jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

GAZTANDEGIA

Etxeko Ardi Gazta

LIZUN

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

Carlos Garaikoetxea
Etxenike

abokatua
aseguru orokorrak

© 948 581468
948 580433 (etxekoa)
Frantziarako etorb. 3
Ameztialde 3B • ELBETE

ZUBIRIA
MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274

Laister zabalik!

ANTOJOS

boutique pre-mama

Arbelaiz Jauregia
Iglesia karrika 8
(Nafarroako Ibilbidearekin eskin egiten)
Tel.-Fax: 943 63 41 70 • IRUN

EZKONTZAK

Bernard Jean Bonnet eta **Nathalie Barthe**, Senperekoak, otsailaren 12an.

JAIOTZAK

Xabier Perez Lopez, Elizondokoa, otsailaren 7an.

Saray Goldaraz Zestau, Leitzakoa, urtarrilaren 30ean.

Oihan Aranburu Alduntzin, Leitzakoa, urtarrilaren 21ean

Leire Erbiti Goienetxe, Leitzakoa, urtarrilaren 2an.

Mikel Zabaleta Artola, Leitzakoa, otsailaren 7an.

Yago Cantero Perez, Berakoa, urtarrilaren 26an.

Ane Osua Cabida, Berakoa, otsailaren 3an.

Jean-Baptiste Goienetxe, Sarakoa, ilbeltzaren 11n.

Andoni Lamothe, Sarakoa, otsailaren 3an.

Leire Barrenetxe, Senperekoak, otsailaren 2an.

Olaia Mitxeo Migeltorena, Donamariakoa, otsailaren 26an.

HERIOTZAK

Jose Oskoz Iñarrea, Almandozkoa, otsailaren 2an, 85 urte.

Felisa Iraizoz Iraizoz, Elizondon, otsailaren 4an, 76 urte.

Matilde Olasagasti Gaztelumendi, Elizondon, otsailaren 5ean, 70 urte.

Salvadora Arregi Iribarren, Elizondon, otsailaren 6an, 86 urte.

Juliana Gaztañaga Sagastibeltza, Leitzakoa, otsailaren 13an, 79 urte.

Maria Pilar Arozana Loiarte, Goizuetakoa, otsailaren 14an, 42 urte.

Guadalupe Agirre Gamio, Narbarstekoa, urtarrilaren 28an, 70 urte.

Roger Hellequin, Sarakoa, otsailaren 12an, 63 urte.

Françoise Lemoine, Sarakoa, otsailaren 10ean, 87 urte.

Dominika Luberriaga, Sarakoa, otsailaren 7an, 84 urte.

Salvador Iribarren Elizondo, Urrozkoa, otsailaren 12an, 91 urte.

Visitación Vivar Caballero, Berakoa, otsailaren 9an, 63 urte.

Victoriano Goia Lasaga, Berakoa, otsailaren 14an, 68 urte.

Sofia Unanua Erro, Igantzikoa, ilbeltzaren 26an, 95 urte.

Marianne Dokhelar-Hourcastagné, Senperekoak, otsailaren 4an.

Escolástica Aiertza Retegi, Doneztebekoa, otsailaren 11n, 90 urte.



Visitación VIVAR CABALLERO

(Félix SANTAMARIAren alarguna)

Bere familiak zoritxarreko egun hauetan hartu dituen dolumin ugariak lerro hauen bitartez eskertu nahi lituzke bihotz-bihotzez. Gure eskerrik beroenak guziei.

Bera, 2000-02-09



Victoriano GOIA LASAGA

(Amaia Goia lankidearen aita)

Zu joan zara bainan zure oroimena gurekin geldituko da.

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA

Bera, 2000-02-14



Bidali

TTIPI-TTAPA

herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

948 631188

DATUAK.....

1 **Iñaki Mihura** joan den urtean hasi zen seriozki korrikan eta Nafarroako eta Euskal Herriko Kros txapelkun suertatu da jubeniletan.

2 **Gan den urtera arte, kadete mailako Urtxintxa txirrindulari taldean aritu da.** «Biek probatu ondotik bizikleta gogorragoa iruditzen zait lasterka egitea baino. Ordu gehiago sartu behar da».

3 **Burlatako Hiru-Herri taldearen izenean egiten du laster.** Ortziralerok Gabriel Garinek entrenatze-
ra gaten da Iruñera. Bertzenaz Lekarozen entrenatzen du. Lekarozen bertan Batxilergoaren lehen maila ikasten du.

TESTUA:
AITOR AROZENA

Iñaki MIHURA Arraiozko korrikalaria

“Inork ezagutzen ez ninduelakoz ihes egitea lortu eta irabazi dut”

Iñaki Mihura arraioz-tarrak lehendabiziko urtea du lasterka, lehen bizikletan aritzen baitzen Urtxintxa taldearekin. Irailean bizikleta zintzilikatu eta urrian hasi zen lasterka entrenatzen. Geroztik, sariak sarien ondotik irabazi ditu. Hamazazpi urte bertzerik ez ditu eta dagoeneko, gazte mailan Nafarroako Kopa irabazi zuen Burlatan abenduaren 3an. Leringo San Silvestre lasterketa fama-tuan nagusi izan zen gazteen artean (42. sailkapen orokorrean). Urtarrilaren 16an taldeka-ko Nafarroako txapelketa eman zion Hiru Herri taldeari, Valtieran nagusitu ondotik. Urtarrilaren 30ean, berriz, Nafarroako txapelketa irabazi zuen bakarka. Otsailaren 6an Muskizen burututako Euskal Herriko txapelketan gailendu zen. Gazteekin ari bada ere, junior bakarra -19 urte artekoak sartu zen bere aitzinetik Muskizen. Nafarroako txapelketan, berriz, junior guztiak ere gibelean utzi zituen. «Ez nituen emaitza hauek espero. Nafarroan bortz lehendabizikoetan sartuta aski kontent nintzen eta gero Euskal Herrikoa irabaztea ez sinesteko modukoa izan da, sorpresa handia».

► **“Nafarroako txapelketan bortz lehendabizikoetan sartuta aski kontent nintzen eta irabazi egin nuen. Gero Euskal Herrikoa irabazi dut. Hori ez sinesteko modukoa da.”**



Iñaki Mihura helmugara ailegatzen eta podiumeko gailurrean Muskizen.

«ESPAINIAKOAN POSTU ONA EGIN NAHI DUT»

Iñaki Mihurak taktika berdintsua erabili du orain arteko lasterketetan. «Taldeari nahiko aisa segitzen nion. Orduan ihes egitea pentsatu, aitzinera jo eta ezagutzen ez nindutenez, utzi egiten zidaten eta horrela irabazi nuen

lehenbizikoa. Gero, moralala hartu dut eta bertzeetan ere ongi ibili naiz». Orain Espainiako txapelketan parte hartuko du martxoaren 5ean Ourensean. «Hori bertze kontu bat izan da, aunitzez gogorragoa, kategoria gehiago izan da baita. Postu on bat egiten badut kontent. Han irabaztea ezinezkoa dela uste dut, baina ikusiko dugu».

Momentuan kroseean bakarrik aritu da, baina laster pistan hasteko in-
tentzioa du arraioz-tarrak. «Espainiako txa-

pelketa akitzean pistan entrenatzen hasiko naiz. Oraindik ez naiz inoiz ibili pistan, baina probatu nahi dut, 1.500 metrotan edo».

Gustoko korrikalari-
ren baten izena eska-
tzerakoan, hemen in-
gurukoei begiratzen die Iñakik: «Andres Perez gustatzen zait».

Etorkizunean zer egi-
nen duen, atletismoari lotuko zaion edo ez, ez du hausnartu oraindik Mihurak. «Orain ongi ibilki naiz eta gustora segitzen dut, gero ikusiko danola helduden».

Patxi Vila seigarren Europako Neguko Triathloi txapelketan

- Espainiako txapelketan bigarren izan zen kirolari beratarra
- Txirrindularitza proban onena izan zen Reinoso eta Eslobakian

Patxi Vila beratarra aski kirolari ezaguna da gure inguruan. Afizionatu mailako Caja Rural txirrindulari taldean ari da eta azkeneko Nafarroako Itzulian, no-

Vilak. Berez txirrindularia dela kontuan hartuz, Espainiako nahiz Europako txapelketan onena izan zen bizikleta gainean. Europako-

kostatzen zaiona, berriz, lasterka egitea da: «Normalean, hankak nekatu egiten zaizkit, baina Eslobakian ongi sentitu nintzen». Zortzigarren postuan kokatu zuen oi-

ezagutzeko baliagarria izan zaio: «Kirola ez da kirola bakarrik. Europako ekialdea ezagutzeko gogoia nuen eta Eslobakiakoak horretarako aukera eman dit

diumera igotzen garrena izan zen kapen orok nafarren artean izan zen. Jakina da txirrindulari de iraila aldean da eta otsailan dira berriz Espainian Patxi Vilak, gure gu partean erabiltzen terrea uzten duen henik Mendakian (korrika eta bizikletan) lasterka tzuetan hartzen ditute eta Jacako txirrindulari gorra irabazteko Neguko Triathloia (korrika, bizikleta eta skia) proba eta emaitza onak kuratu ditu. Neguko txapelketan izan zen Reinoso otsaileko lasterkan Esllovakian Europako txapelketan seigarren onena. Postu horretan taldekako garaia eman zion Espainiako ekipa. «Especializatu naizela kontatzen dut emaitza onak dira eta nago. Gainera, Reinosoan eta Japonean Neguko Triathloia zerbait egiteko da ere, Europako txapelketan izan den duko txapelketan dela errazteko ahal da» d



TESTUA ETA ARGAZKIA: ASIER GOGORTZA



❖ Euskal Herriko kros txapelketa

Ondoko orrian ageri den Iñaki Mihura ez da Muskizko Euskal Herriko Kros txapelketan bikain ibili zen korrikalari bakararra. Arraioztarrak gazte mailako proba irabazi bazuen, Scania taldean ari den Rafa Maritxalar lesakarra bigarren izan zen seniorren artean. Neskak ere ongi ibili ziren: Amaia Lujanbio goizuetarra (Scania) juniorretan eta Olaia Olveira beratarra (Bidasoa) kadetetan, azpitxapeladunak izan ziren.

❖ Neguko Pilota txapelketa

Irizoki eta Retegi beratarrek irabazi dute Neguko pilota txapelketa gazte mailan. Otsailaren 12an jokaturako finalean 22 eta 6 irabazi zieten Txarutako Baleztena eta Huarteri. Infantilean Lesakako Laralde eta Berako Etxebestek 9 eta 18 galduta zuten San Migel elkarteko Zufiurre eta Queralt-en aurka.

❖ Euskal Herriko sokatira txapelketa

Beti Gazte azpitxapeladun eta Areso hirugarren izan dira 600 kiloko txapelketan. Kanporaketetan tiraldi guztiak irabazi zituzten lesakarrak, baina finalean Abadiñok irabazi zion. 680 kiloko txapela lesakarren zat izan da. Areso hirugarren izan da.

AGENDA EGUNEZ EGUN

SOLASALDIK

LESAKA

► **Martxoaren 3an** Bernardo Atxaga. Herrikoetxean. Tantiuramairuren 25. urteurrena.

ERAKUSKETAK

BERA

► **Otsailaren 27a bitarte** Munduko bazter guzietako musika tresnak. Kultur Etxean, arratsaldeko 6etatik 8etara.

► **Otsailaren 29tik martxoaren 5era** Euskararen Tunela erakusketa ibiltaria. Euskal Herrian Euskaraz-ek antolatua. Kiroldegiaren aitzinean.

► **Martxoaren 6tik 12ra** Emakumearen astea. Eskulan erakusketa Kultur Etxean, arratsaldeko 6etatik 8etara.

ZINEMA

LEITZA

► **Otsailaren 25-26an** "Rosetta"

► **Martxoaren 3-4an** "Tres estaciones"

BERA

► **Otsailak 27** "Brownes", arratsaldeko 5etan Kultur Etxean.

BERTSOLARITZA

BERA

► **Martxoaren 4ean** Paia, Lizaso, Maia, Arozena, Silveira eta Agirre. Kultur Etxean, arratseko 10etan.

IKASTAROAK

BERA

► **Martxoaren 4tik aitzinera** Artearen komedia, larunbat goizetan Kultur Etxean. Lamixine BATEk antolatua.

TELEBISTAKO TXOKOA

OTSAILAREN 24TIK 27RA					
	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
11:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
13:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
17:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak
21:30	Bidegurutzean			Herriz-herri	Bera, Arantza eta Iuren

OTSAILAREN 28TIK MARTXOAREN 5ERA					
	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
11:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
13:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
17:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	INAUTERIAK	Berriak	Berriak
21:30	Jokoa Solas			Zuzenean	Herriz-herri

MARTXOAREN 6TIK 8RA			
	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA
11:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
13:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
17:00	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak
21:30	Jokoa solas		Tererekin Solasean



INAUTERIAK

Arantza eta Igantzi

Martxoaren 3an Arantzako inauteriak buruzko programa berezia emanen du ttipi-ttapa telebistak bezperan hasiak izanen baitira, eta martxoaren 6an, beriz, Arantza eta Igantzi inauterian irudi hobereak bilduko dira.

TTIKIEN INAUTERIAK

Bera, Lesaka, Igantzi...

Aurten ere tarte berezia eskainiko diegu gure herrietako haurrei. Eurekin batera eskean aterako gara baseriz-baseri, eta itxude eta artzai gaztearen berri ere emanen diezugu...



Liburuak



ARDI BELTZA
1. alea

"Egin" egunkariko ikerketa taldeko kideak claude proiektu honen gibelean, eta egunkari haren orrietan egiten zuten lanarekin segitzeko asmoz heldu dira orain ere. Hasieratik argi utzi nahi izan dute euren kazetaritzak norabide zehatza duela: "ez gara neutralak, gure subjektibitatea harrotasunez aldarrikatzen dugu lanerako tresna gisa. Hori bai, beti izan ginen bezala, egiazaleak izanen gara guziaren gainetik".



❖ **ZERRIKIA** ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.300 pta.
- **Zerri gizona**(95-100): 151 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 85 pta./kiloa, bizirik.



❖ **BEHIKIA** ❖

- **Aretze gizenak:**
 - **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra570
1.koa550
2.koa510
 - **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra580
1.koa560
2.koa540
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
 - **Nabarrak:** urruyak 14.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
 - **Mestizoak:** urruyak 32.000 eta idixkoak 45.000 Pta.
 - **Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Gizarte zerbitzuen txokoa

Zergatik ez naiz seme-alabekin ongi konpontzeko gai? Zer da egiazki anorexia? Eta bulimia? Nola eginen diot aurre horrenbertze maite nuen pertsonaren heriotzari? Nola bizi dute seme-alabek gurasoen bereizketa? Nola bizi Alzheimer gaixo batekin? Non egonen da hobekiago atautxi, etxean edo zahar-etxean?

Beharbada gisa honetako galderaren bat eginen zenion inoiz zeure buruari, edo beharbada horrelako egoera baten aitzinean egon zara eta ez duzu jakin nola gainditu edo norengana jo.

HILABETEAN BEHIN TTIPI-TTAPAN

Aldizkari honetatik galdera hauei eta zuek bidaltzen ahal dizkiguzuen bertze hainbateri erantzuna ematen saiatuko gara hurrengo aleetan. Horretarako, zuen kasua zein den esplikatuko eta hemendik hoiek gainditzeko aholkuak emanen dizkigun psikologo baten laguntza izanen dugu hemendik aitzinera.

Eguneroko bizimoduan gertatzen diren egoerak dira,



Zenbait arazori aurre egiteko laguntza eskatu beharra ez da batere lotsatzeko kontua.



Raquel Amigo
psikologoaren laguntza izanen dugu igortzen dizkiguzuen zalantza edo kezkek argitzeko.

eta horrexegatik jakin behar dugu haien aitzinean zuzen jokutzen, gainerakoan arazak hagitzez gehiago okertzen ahal direlako.

Beraz, badakizue, zalan-tzaren bat baldin baduzue, kez karen bat buruan bueltaka, edo aldizkarian agertzea nahiko zenuten gai bereziren bat gogoratzen bazaizue, ez dudarik egin, idatzi ondoko helbide honetarako:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
HERRIKO ETXeko PLAZA, 1
31780 BERA

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

BERA

► **Martxoak 4** "Jousilouli", Hip-hop, Hardcore, Lezotik. Arratseko 10etan Pui ostatuan.

► **Martxoak 10** "Jousilouli", Lezotik. Arratseko 10etan Pui ostatuan.

OIARTZUN

► Otsailaren 24an

"Las Gambas". Arratseko 11etan. Paga garagardotegian.

Sarrerak:

Aurretik: 1.500 pta.

Egunean: 1.800 pta.

ELIZONDO

► Otsailaren 25ean

Xabaltx Kasino ostatuan. Arratseko 10etan.

► Martxoaren 3an

Harlax Kasino ostatuan. Arratseko 10etan.

KIROLAK

BERA

► Martxoaren 1ean

Ikaspilota izeneko jardunaldien barnean, Bera eta Lesakako ikas-toletako haurrak ariko dira pilotan. Goizeko 9etatik aitzinera, Eztegara pilotalekuan. 25. urteurrenaren barnean.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnoa. deitu behar da

► Otsailaren 21etik

27ra Arantza, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), eta Goizueta.


► Otsailaren 28tik martxoaren 5era

Igantzi, Ituren, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► Martxoaren 6tik

12ra Lesaka, Narbarre, Elizondo (Lezaun), Urdazubi, Goizueta.

DISKAK



«Adiskideer»

JEAN BORDAXAR

ELKARLANEAN

Zuberoako kantari honen azken diska joan den udazkenean grabatu zuten Altzai herriko Kilikas estudioan. Niko Etxart kantari ezaguna izan zen soinu teknikaria, eta Etxartez gain bertze hainbat musikari izan du bere ondoan grabatzeko orduan, hala nola, Pello Ramírez, Karine Perretton, Mixel Etxekopar (xirula), Anjel Valdés...

Hoiekin batera, aipagarria da

Itxaro Borda bezalako idazleek ere parte hartu nahi izan dutela.

Diskaren azalean iragartzen denez, "xiberotar boza"ri ohore egiten dio Bordaxarrek, eta lehendabiziko abestia aditu bezain laster konturatuko gara hori hala dela. Bi bozetara kantatutako abestietan, baita gitarra, akordeoi edo txeloaz lagundutakoetan ere Jeanen abots garbia nagusitzen da.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin).
1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdut / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

GOIZUETA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldaria eta komuna. Garaje handia. ☎ 948 514 213.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

BERA. 1. pisu bat edo igogailua duen bat erosi nahi dugu. ☎ 948 451 841 edo 607 978 656.

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

BERA. Pisu mobleztatua hartuko genuke errentan. ☎ 600 095 512.

BERA. Pisua edo lokalen bat bilatzen dut bizitzeko eta ingles klaseak emateko. ☎ 948 630 467.

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

LESAKA. Zarandia karriako 8.ean bajera salgai. ☎ 948 210 990.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. Bidasoa karrikan bulegoak errentan emateko. ☎ 948 630 261 / 630 977 207.

BERA. 24 m²ko denda, komertzioa jartzeko prest, eta 29 m²ko almagena edo jarailea errentan emanen nituzke. Biek elkarrekin edo bereiz. Argia eta ura badute. ☎ 948 631 375 edo 630 240.

LESAKA: Albistur eta Bittiria karriketan bi lurrazpiko bajera errentan emateko. ☎ 948 637 948 (eguerditan).

BERA. Agerrako Sara karrikan 117 m²ko bajera errentan emateko. ☎ 948 630 785 (gauez).

SARA. 800 m²ko gordelekua errentan emateko. Nahi diren m²ak alokatzen ahal dira: 400 pta m²a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

ADOS

IRURITA.
- Lur eremu eraikigarria salgai.
☎ 948 451 841
607 978 656

LANA

301 ESKARIAK

Emakume bat edozein lanetan arituko litzateke egunean 2-3 orduz. ☎ 948 630 238.

Klase partikularrak ematen nituzke Leitza edo Areso inguruan. OHoko 4., 5. eta 6.a eta DBHko 1. mailan. ☎ 948 510 383.

Ingles klaseak ematen nituzke Beran. Irakasle jatorriz eskoziarra. ☎ 948 630 410 (5etatik 7etara).

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

R-9 TSE salgai. NA-M. ☎ 948 631 357 (gaueko 10etatik aitzinera).

Ford Escort Atlanta 1.6 salgai. 16 V. SS-AT. 65.000 km. Egoera ezinhobean. ☎ 610 888 390 edo 943 628 637 (Javi).

Mercedes Sprinter furgoneta salgai. 120 CV turboa. Atzean gurpil bikoitza. 3 urtekoa. ☎ 948 637 127.

Opel Kadett 1.6 gasolina salgai. SS-AK. Egoera onean. ☎ 948 630 003.

Peugeot 205 salgai. NA-Y. 250.000 pta. ☎ 948 451 886.

Suzuki DR 350 beltza salgai. 99koa, 300 km. ☎ 948 450 082.

Rieju First motoa salgai, 49koa. ☎ 948 630 052.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Land Rover 88 motza, C-15 D, Seat Marbella, Express D, Corsa D, Astra 1.7 TD, R-19 D. Suzukiak aukeran

BOAN TAILERRA

CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

BERABI tailerrak

☎ 948 631 445 • BERA

Citroen C-25 D, Ford Mondeo TD, Nissan Vanette, Discovery 2.5 TD luxuzkoa.
ETORRI NISSAN PRIMERA BERRIA IKUSTERA

KOMERTZIALA

Saltzaile bat behar dugu

(Gipuzkoa eta Nafarroako iparraldean)

NEKAZARITZAKO MAKINERIA ENPRESA BATENDAKO

BEHARREZKOAK DIRA:

- Dohain komertzialak eta berezko inizatiba
- Euskara ongi menderatzea
- Nekazaritzako makineria ezagutzea (baloratu da)
- Eskualdean bizitzea
- 25 urtetik goiti izatea

ESKANTZEN DA:

- Marka ezagunak
- Prestakuntza enpresaren kontura
- Ordutegi malguak
- Soldata hitzartu beharrekoa
- Lan finkoa eta etorkizun onekoa

Interesatuak, deitu **948 580 258** telefonora

* Faborez, kuriosoak ez deitu

BORTZIRIETAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN...



ARANTZA: Herri Eskola
☎ 948 634 104



IGANTZI: Herri Eskola
☎ 948 637 829



LESAKA: Irain E.P.
☎ 948 638 006

- ✓ Hezkuntza euskaraz
- ✓ Dohainik
- ✓ Jantoki eta garraio zerbitzuekin

✓ Integratzailea

✓ Teknologi berriez baliatuta

✓ Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan

✓ DBH, Batxilergoak eta LH bertako institutuan

✓ Lesaka eta Beran 2 urteko umeentzako matrikula irekia



BERA: Ricardo Baroja E.P.
☎ 948 625 019



ETXALAR: Landagain E.P.
☎ 948 635 215



TOKI-ONA Institutua
☎ 948 625 000

...HAINBERTZE!

Izen ematea: otsailaren 21etik martxoaren 7ra

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratuko, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Jon Gago sunbildarrak otsailaren 17an bete ditu 5 urte. Zorionak Arantzako familiaren partetik. Muxu haundi bat.



Lourdes Mitxelena lesakarrak 24 urte bete ditu urtarrilaren 28an. Zorionak parranderara. Ondo pasau... Zure kuadrila.



Berroetako ama alaba hauei zorionak urtarrilaren 30ean eta otsailaren 4an urteak bete dituztelako. Muxu bat familia guziaren partetik eta besarkada berexi bat Maialen eta Xabierren partetik.



Zorionak Anizko **Maitaneri**, zure 18. urtebetetzea dela eta, aunitz urtez. Anizko lagun partetik. Launbet huntun konbitzia espero dugu.



Iñigo Oskoz Gago doneztebarrak otsailaren 22an beteko ditu lau urte. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Aritz Lezea Grajirenak 7 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta muxu haundi bat zure ama eta atarren partetik.



Maite Aranbillet Galtzagorri sunbildarrak 4 urte bete ditu otsailaren 10ean. Zorionak familiaren partetik. Ongi pasa eguna!



Iñigo Altzugarai Legazkue lesakarrak 12 urte bete ditu otsailaren 13an. Zorionak guraso eta bereziki Alaiaren partetik.



Asier Goia Del Moral beratarrek 3 urte beteko ditu otsailaren 28an. Zorionak familia guziaren partetik.



Eila Altzugarai hilbeltzaren 6an 12 urte bete ditu. Zorionak Pottoki!
Xumar Altzugarai otsailaren 8an 15 urte bete ditu. Aupa guapo!
Fermin Altzugarai otsailaren 6an X urte beteko ditu. Muxu haundi bana amatxoren partetik.



Malagako **Augusto Pardalek** urteak bete ditu otsailaren 17an. Zorionak Lesakako partetik.



Eider Pikabea Mitxelena beratarrek 7 urte bete ditu otsailaren 14an. Zorionak Estazioko familiaren partetik.



Itziar Telletxea Iguzkiagirre martxoaren 3an 7 urte beteko ditu. Zorionak Pitxi!



Azpilkuetako **Manex Urrutia Azkarragak** urtea bete du otsailaren 20an. Zorionak familia guziaren partetik. Muxu haundi bat.



Haizea Etxeberria Terremos lesakarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 24an. Zorionak eta muxu bat attato eta amatxoren partetik.



Leti Errandonea arantzarrak urtarrilaren 16an bete zituen 15 urte. Inoiz ez da berandu ez! Zorionak. Aupa Ekon! Zure lagunak.



Irungo **Ibai Larralde Aranburu** zorionak eta muxu haundi bat guraso eta Lesakako familiaren partetik. Aupa Erreal!



Juanita Urrutia Zozaia urteak bete ditu otsailaren 21ean. Zorionak familiaren eta berexiki senarra Pedroren partetik.



Jose Luis Goñi arantzarrak urteak bete ditu otsailaren 16an. Ongi pasa eguna eta musu bat atta, ama, anaia, koinata eta Amaiairen partetik. Zorionak.



Itziar Larralde beratarrek urteak bete ditu otsailaren 12an. Zorionak Estixu zure lagunaren partetik.




Jon Gagok otsailaren 18an beteko ditu 5 urte. Zorionak familiaren partetik.



Iker Sein Etxeberriak otsailaren 3an 16 urte beteko ditu. Ia ez diguzu beldurrik ematen. Zure ñekek.



Markel eta Julen Suarez Antxordokik 11 eta 5 urte bete dituzte otsailaren 8 eta 17an. Zorionak Josu, ama eta aitaren partetik.




Izaro Iribarren Indaburuk 5 urte beteko ditu otsailaren 26an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Andoni Iribarren Indaburuk otsailaren 21ean urtea bete zuen. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Jon Erro Fagoaga lesakarrak 3 urte beteko ditu otsailaren 27an. Zorionak atta eta amaren partetik.



Asier Goia Del Moral beratarrek 3 urte beteko ditu otsailaren 28an. Zorionak zure lehengusitu Julenen partetik eta musu bat.




Unai Elizagoien beratarrek 9 urte beteko ditu otsailaren 18an. Zorionak familiaren partetik.



Jose Olaetxea Sanz beratarrek 6 urte beteko ditu otsailaren 25ean. Zorionak atta, ama, ataxi-amatxi, Jaione eta Joxe Mariren partetik.



Gexan Petrirena Rozas martxoaren 3an 5 urte beteko ditu. Zorionak!



Janire Andres Zapiaín beratarrek 3 urte beteko ditu otsailaren 21ean. Zorionak eta musuak zure familiaren partetik.



Oihan Larretxea Agirre beratarrek 10 urte beteko ditu martxoaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.




Nerea Larretxea Agirre beratarrek 7 urte bete ditu otsailaren 20an. Zorionak familiaren partetik.



Elgorriagako Edure Etxeberria Petrirena eta Berako Gexan Petrirena Rozas 10 eta 5 urte beteko dituzte martxoaren 2 eta 3an. Zorionak Elgorriagako familiaren partetik.



Maider Almandoz Indakoetxea arantzarrak otsailaren 17an 10 urte eginen ditu. Zorionak familiaren partetik.



Uxua Irazoki beratarrek 4 urte beteko ditu otsailaren 26an. Zorionak Elena, Mikel eta Jonen partetik.



Xabier Astiz leiztarrak otsailaren 20an urtea bete du. Zorionak eta muxu bat Iraitz, ama eta aitaren partetik.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Esnetako 5 miga eta bi behi gazte salgai Amaiurren, denak emari. ☎ 948 580 230.

Lau urteko aharia salgai. ☎ 948 610 839 edo 948 397 070.

Behi baten deretxoak erosi nahi dira. ☎ 948 637 378.

17 ardiren deretxoak salgai. ☎ 948 451 886.

DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

2 CD-Rom eta instrukzio liburua galdu genuen

urtarrilaren 31n Berako Kanttonberri karrikan. ☎ 948 630 688.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

2000 litroko piza hedatze-ko zisterna salgai. Alfa markako 430 litroko esnetankea eta behiak jeizteko

makina salgai. Hiruak egoera onean eta gutxi erabiliak. ☎ 608 977 205 (Ignacio)/948 451 525 (gazez). 8-12 urteko umearendako bizikleta arroxak salgai. Bertze bizikleta bat 5-6 urteko umearentzat. Oso ongi daude biek. ☎ 948 610 783.

Artzain-zakur alemana behar dut baserria zaintzeko. ☎ 948 630 188.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Donamariako Xoleri: zorionak otsailaren 8an urteak bete dituelako. Donamaria ko lagunak.

**4.000m²ko
erakusketa
mobleak
ikusteko**



**MUEBLES
AMETS**

Sarrera BERATik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA

Tfnoa: :948 630 537
Faxa: 948 631 443

Larunbat arratsaldetan irekia

MUEBLES AMETSen


gazteendako mogleei behar
den garrantzia ematen diegu,
material eta kolore ezberdinei
esker, gusto eta behar
guzietara moldatzeko.

BERTSO SAIOA BERAN

MARTXOAK 4
larunbata
22etan
Kultur Etxean



Xabier Silveira



Jon Maia




Manolo Arozena



Sebastian Lizaso



Fredi Paia



Unai Agirre



Gai emailia:
Jon Abril

Antolatzailea:
Berako
Euskara
Batzordea

Laguntzaileak:
Berako
Kultur
Batzordea

Bortzirietako
Euskara
Mankomunidadea

